


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 419568 - PRIMON: 10 PEZETA

ORIAKO ALEGITIK DATOR NOTIZIA...

Industria dela baserrian jarria

Gaur dakarkidan gaia hau ez da, noski, gure herrian bakarrik gertatzen dena, ezta orain bakarrik ere: Labore zelaia etxez edo industritz betetzen ari dira eta baserriak ustutzen.



Alegiko Errotaaldea etxez betetzen hasi zenean. Hondoan Basurka zelaia etxeak ageri dira.

Alegin Errota-aldeko zelaia etxez eta industritz bete zaigu, hor egin da Larraitxo auzo berria, hor dira Fabrensa eta Becker fabrikak eta, ezin alpatu gabe utzi Artzabalza paper fabrikaren egur metaketa tokia. Herri zaharra ere beste zelai batean eraikia dago.

Badira beste bi zelai haundi gure herrian: Ozibar-aldea eta Basurka-aldea. (Frontoietik Atzo-azpi bitartea ez dut aipatzen betea bait dago nola edo hala. Nork ez du horko kea, usain eta ibai zikintzearen berri?). Eta Ba-


surka bailaran bertan daukagun Otegiren industria-edo hori? Bestelagikoek badukete, noski, zer esanik.

Gehienok enteratuak egongo zarete, Basurka-aldeko bailarakoei epe bat eman zaiela beren etxe eta soroak libratzeko, irteko eguna ziur ez badakite ere. Guziak dira maizter, eta nagusiek industriak egiteko saltzeko asmoa hartu dute eta hauek eze- ren eskubiderik gabe daude le- gearen aldetik.

Hau dela-ta 40 bat lagun ka- leratuko da; bost familietako la-

gunak. Alegiko herriak bost ba- serri galtzen ditu: 40 hazienda buru, baratzgauza franko (Besti- txekoak behintzat erabat emanik ziren baratz lanetara), esnea (ezagunak ditugu Basurka-handi- ko ta Bestitxeko esne partitza- leak). Herriak nondik edo handik sortu beharko ditu ordezko ja- nariak (haragi, barazki eta es- nea); nahiko arriskugarri irudi- tzen zait kanpotik sortuko dire- la esatea; gehienetan zer esan ez dakigunean esaten bait dugu hori, eta «urruti» beti urruti. Ni- re iritziz etxean sortu behar du- gu ahalik eta gehien, ez geuro- narekin bakarrik nahiko izango dugulako, besteenera begira jar- tzeak ondoren haundiak ekar die- zazkigukelako baino.

Baserri lanerako gogoa duten baserritarrek kalerazteak baditu beste ondoren gehiago ere, jan kontua aipatu gabe ere. Gure lurraren zaindari dira baserrita- rrek, mendiko ibilbideak gerta- tzen, barrutiei eusten, sua sor- tu bezain laister itzaltzen, urak beren bidetatik gidatzen, tab. Gure lur zati bakoitzak horrela- ko zaindarak dituen artean, izan- go dugu atsedean hartzerik. Atse- dena, jakina, zaindari hoiel to- katzen zaien bezalako bizimo- dua eskaintzen salatzen garen bitartean eta ez gizarteko az- ken hondar bezala daduzkagun artean. «Nerea (jornala) niretaz eta besteren erdi bana» hamai- ka aldez egin dugu baserritarre- kin, romantiko purrkatuak bait gara!!!



Oxibarko soroak, industritarako izentatuak hauek ere. (Arg. Eduardo)

Juan Carlos Errege

Azaroaren 20an hil zen Francisco Franco Bahamonde, Espainiako Estatuaren buruzagia. Telebista, irratia eta egunkariak berri honen lekuko izan dira ondorengo egu- netan. Eta Haren gorputzaren aurrean jende askok ager- tu nahi izan ditu esker ona eta doluminak Haren arimaren alde mezak atera dira bazter guztietan. Francisco Fran- co Bahamondek, urtetako bakea eman duen Buruzagiak, izan beza izan bake bera betikotasun guztian.

Azaroaren 22an Juan Carlos erregegaia errege izen- datua izan zen, legearen arabera.

Juan Carlos de Borbón y Borbón Erroman jaio zen 1938garrengo urtarilaren 5ean.

Familiarekin atzerrian hamar urte arte bizi ondoren Espainiara heldu zen Francoren eskabidez eta Don Juan bere aitaren baimenez.

1969garrengo uztailaren 22an, Francoren ondorengo izatea onartzen du. Geroztik bi aldiz izan da Francoren ordeez Espainiako Estatuaren Buruzagi.

Bidezko zitzaionez Francorekiko zorra eta esker ona agertu du Juan Carlos Erregek bere lehen hitzaldian. Ai- tari eta familiari zor dion heziera ona ere aitortu du.

Aldi berri baten atarian garelako esan du lehen hitzal- dian. Besteak beste hiru asmo haundiren berri eman du: herriari parte hartzeko bideak egin, demokraziaren arau- tara ohituz; guztiok berdinak izango garen zuzentasun egoera sortu, inor ahanztu eta inor berezi gabe; eta Esta- tuaren barruan diren herri desberdinen nortasunaren, kul- turaren eta historiaren euskarri izan.

Bete eta egiaztatu ditzala lehen bait lehen asmo hauek opa diogu Juan Carlos Erregeri. Eta haseratik sinesgarri gerta daitezen eman diezaiela espertxeratu eibarkamen zabal eta orokorra eskatzen diogu umilki.

Basurka-aldeko terrenoa in- dustritarako salduko dira. Hala omen diote nagusiek: datorren urtetik aurrera etxetarako eta industritarako izendatutako te- rrenoaren zerga edo inpuestoak izugarri igoko omen dira; hobe, noski, hori ordaintzea saltzea baino. Kontu hoietan nora doa baserria? Nongo herrian izen- datu dituzte zelaiune haundiak nekazaritzarako? Bideak, etxeak eta fabrikak bakarrik kontuan hartuaz egiten ditugu geure plangintzak.

Herrian (Aitamentuan) ez omen dakite ezertxo ere inongo enpresajakinekin hitzeginda dau- denik. Behar bada, espekulazio- aren sokatan abiatuko da, nik hiri saldu, hik hari saldu, ... Le- tortikigukoen fabrikaren aurrean burutazio batzuk etorri zaizkit:

—Ze fabrika-modu etorriko ote zaigu?

—Zenbat lan-postu sortuko ote du?

—Ze lan postu sortuko ote di- tu, ze kualifikaziotakoak?

«Etorritzen zaiguna hartu behar» ez da, nire iritzirako, bide ona. Gure semeak kualifikaziotako ikasketak egiten ari badira eta beraletzak lanik ez badugu, gure Herrian beste desarrolo- polioetara joan beharko dute; honuntz aldeko emigrazio kualifi- kazio gabea gehitu eta gu kan- pora begira; industria, fuertea

behar dugu, aurren mailakoa eta gure gazte berria hartuko ditue- na eta gorago bultzako dituen. Eta, bukatzeko, azken galdera: ze nolako arduraz hartuko ote dugu alegitarrok geure herriko industrietan? Orain arte «eto- rri» zaizkigun aurrean baino arreta gehiago jarriko dugula es- pero dut; ideal haunditan bat izaten gara askotan eta egune- roko gauza txikitan galtzen gara.

Aldaketa sakonien bezperetan bizi garen une hontan, honelako arazoak agertzeari hutsaren hu- rrengoa irudituko zaio bati bai- no gehiagori, baina maiuskula- kiko Herrigintza, minuskulakiko herrigintza osatua ikusten dut nik eta egunean denbora pixka bat hartzeko gauza ez bagara, i n g u r u a n gertatzen zaizkigun gauza txikiez pentsatzeko, hitze- giteko, ikasteko eta lan-egiteko, gureak egin du. Eta minuskula- kiko herrigintza batek jende as- ko behar du, bakarka azkar erre- tzen delako batetik, eta goikoen erabaki baten ondoren, behean mila nabarmetzen direlako bes- tetik.

Gure herrian bezperak dire- nean, ordu erdi bat lehenago jo- tzen dituzte kanpaiak, nahikoa bait da hori zapata berriak jaz- teko, bitartean hobe dugu abar- kekin jarraitu.

Martzelino Aizpurua

BIXENTE AIERBERi OMENALDIA

Ikaragarri maite ditut mendizaleak

Altzoko Haundiaren herritik barrena Fernando Amezketaarren herrira jo dugu. Gorputz kankailuko gizon batek egin du ezaguna Altzo. Amezketa, berriz, ateraldi xelebrea besterik ez zuen beste gizon batek.

Gizon txintxo eta zerbitzari leial batek egiten du gaurregun famatua, besteak beste, Amezketa. AIERBENEAN bizi den Bixente Aierbek, hain zuzen ere. Aralar bidean dabilzan mendizaleak maitea dute benetan.

Betidanetik dute mendizaleek sarrera etxe horretan. Hor aurkitzen zuten mendizaleek ostatu. 1952garrenean Euskal Herriko mendizaleen bazkunari eskaini zion. Geroztik mendizaleen aterpe izen-daturik eta aukeraturik geratu zen.

Amezketako «Papeleran» egiten du lan Bixentek. Ez dauka salteko. Berea balu bezalaxe maite du.



—Laneko ordutan utziko ahal dizue gurekin hitzegiten?

—Bai, bai. Inork ez digu kon-turik eskatuko.

—Mendizaleek omenaldi bat egin behar dizutela jakin dugu.

—Ez zaituztet ezagutzen. Zu behintzat ez zara gure etxean behin ere izan. Zu ez zara mendian asko ibiliko. Lodiegia zaude.

—Eta zu asko ibiltzen ahal zara?

—Bat ere ez. Behin bakarrik

dut ezeren aitzakirik mendizale-entzat.

—Jende asko ibiltzen ahal da zuen etxean?

—Mendizaleak? Erruz. Bataz beste, neguan behintzat, ehun mendizale sartuko dira gure etxean igandero. Leher gaizto egiten dugu hoiek zerbitzu nahirik. Ez gara iristen. Maria, nere arreba, eta biok bakarrik gaude etxean.

—Gertaera harrigarriren bat edo beste izango duzu, noski.

—Hotzak izoztuta ekarri zuten

dur naiz. Hainbeste jende izango da! Denetara iristen ez baina barkatuko ahal didate baldin bait ere.

MARIAREKIN

—Gure etxera joan gabe ez duzue joan behar. Eztarria urratzeraino hitzegin dudala, esan Mariari. Zerbait hartu gabe ez aldegien, esan digu behin eta berri Bixentek.

AIERBENEAN etxe puska da. Amezketa kale-kalean da. Taberna izan zen garai batean. Mendizaleen etxe bilakatu da gaurregun. Atea jo bezain agudo atara zaigu Maria.

—Zer nahi duzue?

—Ezer ez.

—Bai, bai. Zerbait hartu gabe ez zarete hemendik joango. Kafetxo bana bederen hartu behar duzue.

—Kafetxoarekin batera —eta kafea ez zen alarguna— mendizaleen argazki betetako album pila ekarri digu.

—Ni ez naiz mendizalea. Behin bakarrik igo nintzen Txindokira. Igaratzara joaten ginen urtero San Migel ekartzen zuten. Jakina gazteak ginen eta mutil usaian joan ohi ginen, aitortu digu.

—oOo—

Euskal Herriko mendizaleen biltoki gertatuko da Amezketa Azaroaren 30ean. Jaiatz geroztik mendizaleen zerbitzuaz ibardun den Bixente Aierberi omenaldia egin asmoz bilduko dira.

Zorionak, Bixente eta Maria!

MUTUOZABAL

MENDIZALEEN IZENEAN

Hil honen 30ean, ondo merezia duen omenaldia eskainiko zaio, Amezketa herrian, Aralar mendian ibiltzen direnen adiskide eta lagun den Bixente Aierberi.

Izan ere, nork ez du ezagutzen Bixente? Zein mendizalek ez du hartu Bixenteren laguntza goxori? 23 urte badaramazki Bixentek bere Aterpe hontan, mendizalei arrerarik berogarriena ematen; izan ere halakoxe barru leial eta ona baitu gure adiskide honek. Edozein mendizalek daki, eguna, aldapan gora eta behera ibili ondoren, izerdi patsetan jeltziarren, ezaguna ala ez ezaguna izan, hain egongo dela Bixente bere aterpean eta esku bakarrik hartua izango dela.

Bestalde berriz, gure Bixente hau, hain abila eta trebea da aurpegia ezagutzen. Lehendabiziz bere aterpera djoan mendizaleari, hain maitekiro onartuaz, berehalaxe esango dio: «zu berria zara hemen» eta eskuetan jarriko dizkio mendizaleen argazkiez betetako albumak.

Amezketako mendizaleen Aterpe hau, Bixente berarena da, eta 1952 ko urriaren 19an, Euskal Herriko mendizale bazkunari eskaini zion, mendizale lanetarako; eta horrelaxe, orduan Gipuzkoako mendizaleen ordezko zen Peciña Joxe Mari ontzat hartu zuen Bixenteren eskaintza.

Harrez gero, Amezketa, mendizaleen batzarre tokia da. Hainbeste eta hainbeste mendizale dira, Aralar mendiatara igo direnak, Bixenteren aterpetik pasatuaz.

Peciñak zioenaz, Bixenteri eta bere jatorritasunari eskerrak, hain maitakor egin da Amezketa aterpe hau.

Inoiz inguratzeko bazara Bixenteren aterpera, zuretzat izango dira bai sukalde, dutxa eta behar duzun guziaz; eta ez ahaztu gainera hain daudela sarritan behar izaten diren kamilla eta botikiñak.

Aterpe hau zabaldu zen egunean, hain ziren, Tolosa, C. F., Amigos de Aralar, Club Vasco Camping, Amaika Bat, Fortuna, O.A.R.G.U.I., eta Antigua eta Añorgako luistarren ordezkariek.

Geroztik, igandez igande, hain dago Bixente mendizale guzien zerbitzurako. Eta ezin ahaztu noski, bere arreba Maria ere. Hura ere laguntzarako prest egoten baita.

Beraz, mendizale guztion artean, Bixenteri omenaldi jator bat eskaintzeko ordua eldu zaigu eta halaxe egitera goaz. Ongi etorriak izango zarete mendizale guztiok. Berriz ere Bixenteri besarkada bat, esker oneko besarkada bat ematera bildu gaitzen hil honen azken igandean.

MIKEL

EGITARAUA

Goizeko

- 11tan. Mendizale txistulariek kalejira joko dute.
- 12etan. Meza, txistulari eta bertsulariekin, txlaparta.
- 13tan. Pelota partiduak eskuz eta xarez.

Eguerdiko

- 2etan. Mendizaleen arteko bazkaria. Tarteka, bertsulariek eta txistulariek, saio batzuk egingo dituzte. Ondoren, Patxi Iriondo, Euskal mendizale BAZKUNENKO Lendakariak, oroiragari bat ezarriko dio BIXENTERI, Aralar mendian ibiltzen direnei eskaintzen dien laguntzarengatik.

Oharra:

Jaialdi hontara bildu nahi duenak leku hauetan eman dezake bere izena.

URDABURU - Santa Maria, 8. ERREENTERIAN.

KRESALA - Euskalerrri, 9. DONOSTIAN.

C.A. UZTURRE - Division Azul, 5. TOLOSAN.

LAGUN-ONAK - AZ. AZPEITIAN.

DEPORTIVO EIBAR - 2 de Mayo. EIBARREN.


E.N.A.M. GUIPUZCOA. Poniente, 18. IBARRAN.

Urrutizkiña: 65.15.12

Hil honen 23rako, eman zuen izenak.

Txistulari diren mendizaleak, betoz beren txistu txistu, eta txuntunarekin.

Eskerrik asko



igo naiz Txindokira. Ez naiz mendizalea.

—Halere mendizaleen lagun.

—Bai horixe. Ikaragari maite ditut eta ikaragarri maite naut. Oso jende jatorra da.

—Mendian dabilen zenbaitek okerrak ere egiten omen ditut bada, ardi zintzarriak eta behor durbak lapurtzen eta abarretan?

—Neuk ere entzun ditut hone-lako gauzak. Ez dakit hala denik. Erositako prezioan saltzen dut. Nere etxean, behintzat, oso ondo portatzen dira denak. Nik ez

behinola mendizale bat. Ez zuen arnasarik ere gure etxera iritsi zenean. Medikua hiltzat jo zuen. «Hau ez da bizi», «hone-nak egin du», esan zuen. Medikua aldegien zuenean ohean sartu genuen. Botila berot estali genion gorputza. Garasika eta intzirika esnatu zen hurrengo goizean. Gaur oraindik bizi da. Dostia Pujol zen gizon hura.

—Omenaldiaren pozean izango zara, noski?

—Poza eta kezka, biak ditut. Denek ez ote dledan nere esker ona agertuko, behar bezala, bel-

GUREKIN AURRERATU EZAZU

ZURE ALDE ASKO DEZAKEGU

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



BIZIBERRITU

Hau da gaurko bizimoduak jotzen digun erronka. Eguneak egunera aldatzen ari da bizitza. Mundu berri horren arabera moldatu behar dugu edozertan. Baita kazetagitza ere.

Gure aldizkari honek euskaldunon astekari izanaz jarraitu nahi baldin badu, gain eta barru, du aldatu beharra. Idazlan onak eta interesgarriak astero ditu. Baina, hasi eta buka, behar luke izan interesgarria eta irakurgarria.

Euskaldunok behar dituen gai guztiak alpatu eta jorratu behar ditu. Asteazken zehar gertatu direnak aztertu behar ditu. Ez da aski gai batzuk egoki eta sakon aztertzea. Gaiak irris-takorrenak ere alpatu eta aztertu beharko lituzke. Gaiak irris-takorrenetan ere irizti eta buruzpide jator bat eskalni beharko lioke irakurleagorari.

Ez zikintzea ez da aski. Ez da gutxi izan. Gure molde urri eta estuetan esan izan duenaz eta isildu izan duenaz da alpa-garri eta txalagarri edozein euskal aldizkari. Hitzegitea baino nabarmengoa gertatu ohi da zenbait aldiz isiltzea. Gaiak mintzatzea baino isiltzea hobe beti ere.

Beti isilik ezin egon, ordea. Gure iritzia, ametsak, premiak, asmoak eta abar aldarrikatu eta oihukatu behar ditugu. Inoliz isiltzen dakienak errespeto haundia jartzen du. Baina beti isilik dena ez da hainzakotzat hartzen.

Urte Berri bat, Haro berri bat, hasten dugu laister. Aldizka-ri berri asko sortu da gertatzen. Zaharretatik ere, azalet eta mamiz, berritu denik bada.

Neurriz, itxuraz eta mamiz euskaldunon astekari bihurtu behar dugu denon artean aldizkari hau. Baina horretarako gauza asko egin behar da.

Edozein gai alpatzeko eskubidea lortu behar du. Gogozkoak ditugunak eta hain gogozkoak ez ditugunak, denak alpatzeko aukera. Gure iritzia erabera eta argiz, eta besteren aginduz zarpeatutako eta ilundutako, egia eta gertaeraz idazteko bidea.

Eskuak zikintzeko eskubidea izatea beharrezkoa dugu. Ez bekigu birjina antzuet gertatu zitzaizkion gerta. Ezer egiten ez duenak ez du okerrik egiten. Hobeto esanda, oker haundi bat egiten du, egin daitekeen okerrik haundiena: ezer ez egitea. Irakurlea edozein gertaeraz jakinaren gainean jartzeak ekarri ohi duen arriskua jokatzen jakin behar dugu. Gu birjina gertatze-atik irakurleak emagaldutara jotzea tristea bait litzateke.

Legez sendotu hutsez ez dugu dena konpontzen. Astekari bizi bat egiteko, besteak beste, jendea eta dirua behar dira. Dirua behar da. Erabat horretara emanik den jendea nahi baldin badugu dirua behar da.

Dirurik ez dutelako ez dira hobetzen aldizkariak eta hobe-tzen ez direlako ez dute ekartzen dirurik. Hauexa da, lurrari heltzen ez dion gurpillaren antzera, beti leku berean jirabrak ibiltzea!

Aitor dezagun, behingoz, garbi: dirurik ez baldin bada ez dira hobetuko. Alfer alferrik gabilza atzaki-maitzakit. Ber-ritzen hasiko baldin badira diruaren bultzazkoa nahitaezkoa dute.

Dirutan etekin ona emango duen lekuan jartzen ohi-tuak ditugu dirutxeak eta aberatsak beren dirua. Diruak beste fruitu batzuk ere eman behar ditu. Herriaren zerbitzuan era-bili behar da dirua. Ez dugu limosna eske ibili nahi. Erdaraz-ko propagandan botatzen dutena euskarazkoetan bota dezate-la nahiko genuke.

Aldizkariak, ordea, ezin daitezke hortatik bakarrik bizi. Ira-kurleagoak emate nduenetik ere bizi behar dute. Dituzten eros-le eta harpidedunak baino erosle eta harpidedun gehiago ez badute gure aldizkariak, bixi bakarrik egingo dira. Direnean direnez, iraua, eta ez luzaroan.

Biziberritzearen atarian harpidedun bakoitzak beste har-pidedun berri bat egin dezala nahiko genuke.



HAR - IRAKUR - ZABAL

LANGILERIA ETA LEGERIA

Jaime Montalbok argitaratu berria duen liburuari, sarrera gisa, bi hitz luza nahi genizkioke.

Hasteko, nor dugu Jaime Montalvo? Donostiako Lege Ikastetxeko irakasle ospetsua, langi-leriari dagokion legegidiaren erakusle argia; gure langile herriak hain beharrezko dituen gaitzen prestatzailea. Bere eguneroko lanaren ondorio bezala, eskola eta talde bat sortzen ari den gizon a dugu Jaime.

Aurkeztu nahirik ari gaitzaizki-zuen liburu hau ez dago lege gizoni bakarrik eskainia, baizik eta hiztegi tekniko xamarra edu-ki arren, langile arazo inguru-za egatuko nahi duen guzietan inter-esgarria gerta dakieke.

Egunero argituz eta berrituz joan beharrekoak badira ere, bere irizti aurrerakioak argi eta garbi dargikizkigu, erabakiak ze-hatzak dira eta langile giroan gogor finkatuak.

Lanak, esan beharrik ere ez dago, gizonaren izate eta izaera guztia kutsatzen duela, garai ba-kuitzean bizitzeko era moldatzen duela, lana eta kondaira bat-baturik daudela.

Kondairak erakusten digunez, produkzio bide edo erak alda-tzean, giza harremanak ere be-harrez aldatu egiten dira. Egi-learekin batera, lanaren ezaguer-a gizonaren ezagupide dela esango nuke.

Egia da, bai, lana besteratz-e bide dela, bainan, bide batez, baita ez besteratzeko ere, hau da: nor bera izateko osatzeko erremedio gertatzen dela.

Liburuaren muña zera dela esateko aurreratu nintzateke: lan-gileriari legeria, onurakor hain-bat kaltekor gerta dakiokeela; Onurakor, ber ekondizioak ho-betzen dituelako sarritan eta kal-tekor, langileriaren izateari, be-re askatasuna ukatuaz, iraua arazten diolako.

Langileriaren bultzadak behar-turik, agintzauden taldeek ematen dituen erantun politik-o bat besterik ez da legedi hau.

Me n d ebaleko Kapitalismoak, langileriaren bultzada dela bide, aurkezturik dadukan hil edo bi-ziko borroka honetan irtenbide bakarra du: beharrik agintzen dion garaiari eta eran, bere bu-ruari neurriak ipintzea; honetan-txe datza langile legeriaren fun-tsa: langileriaren askatasun ekin-tzei, burgesiak bere buruari irau-a arazteko, eskaintzen dion erantzuna besterik ez da legedi hau.

Langile kondizioak legez hobe-tzeak, beraz, sarritan ez da bur-

ges erakundeari iraua araztea besterik bilakatzen.

Egia da, legeriak, zapalketa neurri batetan gutxitu, egoera eramankorrako bat sortzeko era berriak bilatu eta gizartearen pa-ke tankera bat moldatzen duela, bainan guzian gainetik zera egongo da: gizartekera bati eus-tea.

Langileriak egungo produkzio sistima erabat aldatu nahi du, bainan abidea zail honetan, es-kakizun zehatz batzuk, era ba-tean sistimari eutsi arazteko bi-dere gertatuko diren eskari edo egoera hobeagotze zehatz batuen alde ere burrutakotuko da. Beraz, hemen datza, langile legeriaren kontradizioa.

Egileak dioen bezala, aginta-riak, langile taldea indartzeko bide diren, elkartzeko ahalmena, huelgarako eskubidea eta antze-ko jokabideak legetzea baino nahiago izango du beti, iraba-ziak igo, orduak urritu, seguri-

tatea hobetu eta antzeko eska-kizun zehatzei erantzutea. Pro-duktzioerako har-emanei ukitzen ez dieten neurri hauek kontrola-tzea errazagoa baita hain zuzen ere.

Bestalde, langile arazo eta ha-rremanak bere sorreratik gaur-daino, nolatan neuritu eta muga-tu dituen gure inguruan legeriak jakiteko, interesgarria deritzait liburu hau irakurtzeari.

Langileen mundua mugatzen duen lege adar honen beste zen-bait bereiztasun interesgarri ere, aurki daiteke lan honetan. Be-raz, lan zabal honen muina bi lerroetan eman ezinezkoa denez gero, ahal bazenu irakurtzeko gomendatuko genizuke

FUNDAMENTOS DEL DERE-CHO DEL TRABAJO
Jaime Montalvo Correa
Ed. Civitas 1975
330 orri.

Ibarguren

AZPIMARKA

—Herri-izatea galtzeaz ikustearan ondorio bat du-gu hainbat arlotan sartuta ibili behar izatea, baina geure onerako eta Herria-renerako, norberegano mugak jartzen hasi behar dugu, saltsa guztietako pe-rrejl izan gabe». (J. Ta-bira).

—Hiru galdera, hiru ez-tenkada bota dizkigu Mikel Ugaldek: «Ikastolek hez-ketaren aldeko aukera egin ote dute? Honek berekin dituen eskakizun guztie-taz jabeturik ahal gaude? Ez ote gaude erdi bideko epelkerietan lasaikiro ko-ktuak?».

—Ez gara makalak eus-kaldunok, gure harakina-ren poesia Amsterdamer-aino heldu bada!

—Kixket eta Popoloren azken komikia irakurri on-doren atera dudun ondo-ria: Ikastolekako haurrek euskara gogoz ikas deza-ten Basajauna, Mari, «Su-gaar» eta honelakoei bu-ruzko filmeak egiten hasi beharrean gaude.

—«Ke piska batek bizia eman liezaguko» —esan du Haritzelharrek. Eta gu, zorioneke ke hori nola ken-duko! Proposamena: Bilbo

aldeko ke piska bat anal-kiro Iparraldera bidali, su-pazter eta guzti, jakina.

—Euskaldunok baditugu erakundeak edo erakunde-txoak. Baina «begi luze eta argia duen» erakunde-rik ba ote dugu? Beti itsu-mustuka ibili nahi ez ba-dugu horrelako erakunde-ren batetan seriooki pen-satzen hasi beharrean ga-za.

—Loiolako erlijioso ba-tzarrean behin eta berriz agertutakoa: «Erlijiosoak ez dezake ebanjelio lanik egin Euskal Herrian, eus-kal mintzodun izan gabe». Zalantzan dagoen bat izan egingo da, agian...

—Joanes Huarte Doni-banekoaren «Examen de Ingenios» liburu sonatua-ren laugarren mendeure-na dela eta, Etxarren-Lohi-gorrien dela: «Ohitura bat bezala dugu euskaldunok errealtatea b a z t t e r z e k o, gauzak eta gertakariak errealki diren bezala ez ikusteko». (...) «Hator, Huarte, hire gurasoen lu-rerra. Hator etxera; ilun-pean gaituk eta hire epi-rituaren argiak ba direk hemen zer egin...».

BERRESALE

ZERUKO ARGIA

JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Ara-goko Keputxinoak.
Burlada, Kale Nagusia, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kalestano Ezeiza Iturriza

ARPIDA SARIA:
Berruan 400 pezeta
Korreo batasune-ko herrietan 620 pezeta
Atzerietako bes-te herrietan 460 pezeta
Alrez Aldez aurre-tik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 10 pezeta

Moldatzea eta idazkora:

«Gráficas Navas»

A. Adasain, 1. IRUINEA

D.L.: NA. 88-1963

zenbat gara

Berriak

San Andres bezperan, Donostiar Orfeoak Eibarko San Andres Parrokian kantatuko du. Saio hau, Armeria Eskolako Ikasle Elkarteak eratu da, sortu zeneko 25 urteurrenean, udalekaren laguntzarekin.

Donostiar Orfeoia 1897 urtean jaio zen, eta gaur egun munduko abesbatzirik onenetako bat dugu. Donostiarrek urtean behin ateratzen dira probintziako herrien batera. Aurtun, Eibar eta inguruko suerteko daude beraz.

Azaroaren 29an, iluntzeko 7etan.

● Biharamunean, Euskaltzaindiak bere hileroko biltzara eratuko di Bizkaiko Lemoan.

Lemoan ospatze hau, Juan Bautista Eguzkitza euskaltzainaren oroitzapenaren izango da, jaio zeneko ehun urtebetetzean. Eguzkitza azaroaren 28an jaio zen, hain zuzen.

Itetan elkar-meza Andre Mari Elizan, Meza ostein oroitaria agertarazte. Ondoren Euskaltzaindiaren biltzarre irekia Eskola Berrietako Batzartegian. Eusebio Erkiagak eta Xanti Onandiak nork bere txostema irakurriko dute, eta, azkenik, aurtun irakasle tituluz jabetu direnei agiria emango zaie.

● Azaroaren 29 eta 30ean Antzinako Euskal Tresnen I Erakus-Sariketa eratuko da Zaldibarreko Udaletxean. Honako erakusketak bakan hau Koru Elkarteak prestatuta da, Balentin Lasuenen (hainbat urtetan Gerediagako lehendakari) ideia batez.

Argizaiola, pitxar, ontzi, erloju, harma, ispilu, lanabes, tresna eta denetarik guzta zahar bitxiak aurkeztu ahal izango dira, joan zen mendekoak diren artean behintzat, hau da, 76 urte zahar gutienik.

Erakus-Sariketa hau, horrenbeste etxetzar eta baserritar erdi bazterturik dagoen gauza baliosu asko agertarazteko asmatan burututa da. Sariak 20.000,— pta. hainako izango dira guztiz, lehena 5.000,— pta. delarik.

● Azaroaren 25etik abenduaren 3ra, ezkontzaurreko hitzaldiak programatu dira Elgoibarko Urbitarte Elkarteak. Psikologiak, soinketak, erdizte eta jaiotza kontrolak, seme-alaben hazkuntza, gizarte erantzukizunak eta ezkontzaren kristau zentzuak, euskaraz burutu dira.

Hilaren 3an amaiera emango zio, aldeaz aurretik parte hartu izan dute hizlaren jendaurreko elkarrizketak batez. Alfonsito Gillo, J. J. Araolaza, Nekane Iturbe, Felix Arrizabalaga eta Karlos Agirre mintzatuko dira.

● Abenduaren 6an, azkenik, «Euskaldunen Gaua» delakoa izango da Parisen.

Urtero bezala, parista eta kanta talde hainbatek hartuko du parte, Parisko euskaldunek eratu nahi izaten duten emanaldi honetan.

Kili Kili

Urtero bezala, KILI KILI garaiz iritsi zaigu Gabon aurretik.

KILI KILI umetxo bat da, Jose Antonio Retolazak sortutako pertsonaia bat, euskaraz arduratzen duena, dena, asko jakin arren beti euskaraz hitz egiten duena. Pertsonaia honen inguruan, Retolazak alfabetatze sistima bat asmatu du, ikastolara joaterik ez duten 7-10 urteko neska mutilentzat burututa batez ere.

Ehun mila inguru ume euskaldun omen dago Euskal Herrian, ikasletara joaten ez direnak. Hottako hemezortzi milaren batek hartu zuen parte 1973 urteko KILI-KILI ikastaroan. 7.500 Bizkaian, 6.500 Gipuzkoan, 4.000 eskas Nafarroan, eta bostehunen batek Araban.

Iaz gutiago agian. Retolazak berak beste lan batzutan ihardun behar izan zuzenez. Hala ere, berrorrek esan diguz, aurtun jo ta ke ekin behar omen dio berritro ere KILI KILI gatzetxoari alfabetatze lanetan laguntzeari.

Alfabetatze ikastaro hau euskaraz dakitenentzat da, euskaraz idazten eta irakurtzen ikasteko. Postaz egiten da, hau da etxetik ateratzen. Edonork parte har dezake. Bizkaian (Bilbo) «Euskerazaleak» eta Gipuzkoan (Eibar) «Euskerazaleak» izeneko elkarteak dira antolatzaile. Araba eta Nafarroan, berriz, Foru Diputazioak.

Euskal morala

Ez da gauza berria. Are gutiago gure artean. Lehenengo salatu zuena Krutwig izan omen zen.

Intelektual patrimonioak eta intelektual moralaz ari gara. Euskal Herrian hain kontu gutitan dugun intelektual dohai horretaz, hain zuzen.

Euskaldunok onartutak gara, mundu honetan inor onaturik bada behintzat. Lapurretarik ez gero, Jainkoaren izenean! Ohostutzea, txakur txiki bat bada ere, ez dugu begi onez ikusten.

Besterik da, ordea, dirua edota ondasun materialen bat izan beharrean intelektual mailako ondasun bat denean. Horretan ez dugu horrenbeste kontu eta lotsarik. Edonork hartzen du berretzat inoren idiak, eta, iturririk aipatzea ere, erraz asko besteen lanaz baliatu.

Ez dugu intelektual gaiez, materiazko gauzez erabili ohi dugun neurri berbera erabiltzen. Batean eskuak bezain zabalak gara besteak.

Horri, IRAKUR izeneko liburuxka berriak. Eraz eta molde oso onak. Baina horrenbeste kostatuko ote litzateke ipuin eta irakurragiak norenak edota nondik «harrapatu» diren aipatzea?

Irun iri sariak Jon Etxaide mintzo

Azaroaren 9an, Irun Hiri Sariet buruzko bi elkarriketa labor azaltzen genituen ZENBAT GARA sail honetan. Luis Haranburu-Altunarekin ipuin sariak, eta Juan San Martinek poesia. Azken honetaz mintzo zaigu Donostiatik Jon Etxaide, bera ere poesia sarietako mahaiko izan den aditak.

Adiskide onetsia:

Irakurri dut Z. ARGIAren 661-662 zenbakian, Irun Hiriko Olerki Sariak emateko duzun albiste, eta bertan dioguzenez uste dut ez diozula ongi ulertu San Martin adiskideari. Zuk honela galdetzen diozu bion adiskide komunari: «Eta inork ez ahal du nahiko mailarik izan?». Erantzunga zuk honela ipintzen duzu: «Biren ustatan bazuen BATEK nahiko meritu. Gainera koen iritzi, ez, ordea».

Lerropetua nere dela aditzera eman ondoren, ez-tut uste San Martin-ek horrela erantzun zizunik, eta horrela esan baldin bazizun, igarri gabe egin zuen.

Kontua hau da. Hiru mahaiko saria ematearen kontra gifa eta bi alde, baiñan bi aldekoak etziren olerki baten alde, biek olerki liferentea begiz jo baitzuten sarigarri eta ifiola ere etzegoen bata besteari amore emateko, eta horretaz gainera alfortzen zuten beren begiokak etzizela hats handiokak. Beraz, hirur kontra gifañ, bat, baten alde, eta bestea bestearen alde. Uste dut, gauzak honela planteaturik, zuzenena eta bidezkoena saria hutsan uztea zela eta horrela egin genuen.

Liferente izanen litzateke bi saritze ustekoak poesia berberan begiak jarri izan balituzte. Orduan zinez hirur biren kontra izanen gifañ, eta egoera honetan iduri zait hirur kontrakook burua makurtuko genuela saria ematearen alde, nahiz-ta gure iritzian zinez ez merezigarri izan. Euskararen eta euskal poeta saiatuen onoz eta mesedez horrelako opaepen bat egitea expaitut uste bekatu handia izango zenik, eta gogoiz eginen genuke posible izan balitz, baiñan sari emate aldekoak alkar etortzen etzirelarik, etzen posible inor saritzerik.

Eskertuko nizuke, beraz, Euskal Poesia Sarietako honetan gertatutako argi eta garbi jarriko bazenu aldizkari berberan, alde handi xamarrak baitago zuk kontatutakotik benetan gertatu zenera.

Besterik gabe agurtzen zaitu zure adiskide eta zerbizari honek. Jon Etxaide.

● Jon Etxalderen gutun hau jaso bezain laster San Martinek mintzatu gara telefonoz. Juanitok gauza berbera errepikatu digu, hots, bi zirela lehen saria emateko prest zeudenak, baina bakoitzak lan desberdin bat proposatu zuela sarigarri. Beraz, ez genion elkarri erabat ulertu harako galderantzunak moldatzen.

Juan San Martin bat dator Etxalderekin ere, biren proposamenak berdinak izan balira agian saritua aterko zela pentsatzen. Horregatik hain zuzen, San Martinek uste du, bototara jo baino lehenago mahaikoan arteko elkarriketa irekia behar beharrezko litzateke, elkarren iritziz jakin eta elkarri ikuspegi berriak sumarratzea.

Amaitzeko, gure aditak zera nahi genuke garbi utzi, hots, bi alde eta hirur kontra gertatuagatik sariarik ez zela eman aipatzen, ez genuela «bigarren zentzu» ezertxo ere esan gura. Alegia, guk geuk ez dugula horretaz hitzik, eta biren iritzien kontra hiruren nagusitasunak ez duela lege onoz zalantzarik sortzen, mahaikoak ez bait dira alferrik bost, eta zerbaitagatik, hain zuzen.

Labur labur

Gipuzkoako Diputazioak 23 milioiko presupuesto bat aurkeztu du Arretatik Elgoibarko San Pedrorra bidet berria egin ahal izateko.

● Debako Nuklear Zentralaren eraikitzeke Espainiako Nuklear Programa Orokorren barruan jarritzen du.

● Lupe eta Xabier Zamudio abeslarien Gizona Jaiki izeneko kanta klasifikatua atera da Iruiñeko IX Gabon Kanta Berri Lehiaketaren lehen berezuntzan. Hamabi izan dira hautatuak, eta berori da euskarazko bakarra.

● Donostiako egunkari batetan irakurtzen ahal duguz, Simon de Ugarte delako bat omen da «Hablamos los Vascos» liburuaren egilea.

Martin Ugalde eta «Hablamos con los vascos» esan nahi ote?

● «La Gaceta del Norte» delakoan, berriz, euskarazko gutun bat agertu berri da, telebistako euskal programa noiz atera behar ote den galdetuz.

Ez da «gazetari» euskaraz irakurtzen dugun lehenena. Eta gehiago idatziko bagenu? Eta ez Bilboko egunkarietan bakarrik...

● Usua euskal izena onartua izan da Iruiñeko errejistroan.

Gipuzkoako hainbat arduraduni «Ujue» delakoa burutik atera ezinik, ordea.

● «Ilarra» kazetari gasteak egin duen kalkulato batez, Durangoko Azken Liburu eta Disko Azokako salmenta sei milioi pezetan haina izan omen da.

● Sarrianandia eta Egidazu gasteak inkesta bat egin zuten Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartu zuten editorialen artean, eta ondorioak GERE-DIAGA boletinean argitaratu emango.

Dato hoik ZERUKO ARGIA honetan jakinarazten saiatuko gara.



Gabonetarako prestatzen

Nork esan gero! Aurtengo Gabonak ere gain-gainean ditugu. Olenztaro badatorkigu. Han hemenka zenbait antolaketa prestatzen ari dira.

● Eibarren herri taberna bat zabaltzeko asmatan dihardute ikastolaren alde. Abenduaren 20tik Errege eguna pasatu arte irekiko da.

Ariatzan jarriko da, eta guraso talde bat hasia da dagoeneko debatarrekin harremanetan, «trapatxoak» eta gainerakoak ikasi nahirik.

● Abenduaren 27 eta 28an eratuko da aurtun, Bilbon, Santiago Apostol ikastetxean urtero eratu ohi den Gabon Jaialdia, umeentzat bereziki burutua.

Aretoak mila eta laurehun eserleku dituen arren, iaz lau egun lehenago aitu ziren sarrerak. Horregatik da, hain zuzen, aurtun bi egunetan egitea.

Programa, zehaztu bezain laster jakinaraziko dugu.

● Abenduaren 28an ere, Euskaltzaindia Donibane Garazin bilduko da, Jean Barlier euskal idazlearen oroitzapenentzat.

Ehun urte datoz orain gure garaztarra jalo zenetik. Lehenengo aldiz, bestalde, Euskaltzaindia Garazki hiriburuan biltzen dela.

● Urtearen azkenean amaitzen da Gipuzkoa Aurrezki Kutxak eratutako Herri Berri Emaleen Sarietaren azken epea.

Izenburuak berak dioenez, herrietako berri emaleek bakarrik parte har dezake. Berrien aukeratzeko eta gaien sakontasunaz, euskal herri berri emale onak ditugu gero.

Ez ahal du inork bere herri edo probintziako arazoren batez lantxo bat egingo. Hamabost mila pezetako saria irabazteagatik, batetik, eta ZERUKO ARGIA promozionalteagatik, bestetik.

● Eguberri aurreko bizpahiru egunetan Euskal Liburu eta Disko Azoka eratuko da Gasteizen.

Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariaren idazkari den Hendrik Knorr-ek esan diguz, 10.000,— pta. saria egongo da euskarazko libururik onenarentzat, beste horrenbeste erdarazkoentzat, eta hirugarren berditu bat diskoentzat.

Beraz, dirudienez, Durangon ohore baina Gasteizen amore.

Azken berriak

Aste honetako orrialdea erabat buruturik dugula, hona Bizkait aditak datorkigun berri bikotea.

● Abenduaren 16an edo (oraindik ez da eguna guztiz erabaki), Bizkaiko Diputazioak saio berezi bat antolatu nahi luke Karmelo Etxegarai zenaren omenean, haren heriotzaren berrogeita hamar urte betetzean.

Diputazioako liburuzain den Carlos Gonzalez Etxegarai jaunak esan diguz, Aita Villasantek, Mañariak eta Arana-Martiak dagoeneko dute emana dute. Euskaltzainburuak euskal idazlea izan zen aditak aztertuko luke Etxegarai, Mañariak historigile bezala, eta Arana-Martija azpeitiarraren teologi eta aszetika jakintza mintzatu.

● Durangaldeko «Gerediaga» Elkarteak kazetari-tza eta alfabetatze sariak prestatu nahi litzuke berriro ere, eta urtero emateko asmatan hain zuzen. Sarietako bi hoik 1974 urtean eratu zituen, eta ez zen inolazko jarraipenaren pentsatu.

Orain, berriz, Liburu Azokaren antolatzaileak ohar-tu dira euskal liburugintzari dibulgazio eta alfabetatze mailako produkzioa falta zaiola, eta kazetaritza nahiz alfabetatze sariak berretztatzea onartu ari dira, euskal literatur motarik aruntzenak eta irakurrienak sail hoitan kokatzen direlakoan.

Proposamendu hau Biltzar Nagusiak erabaki beharko du, abenduaren 27an Gerediagan bertan egingo den batzarrean.

AMATINO

DISZIPLINA - AUTODISZIPLINA

Haurra ikertzen badugu berekasa, bere gauzetan ari denean, ez dugu nabaritzen inondik ere disziplina aztarrenik: ez du bere gauzetan ordenarik, egin behar duena gerorako uzten du, atsegin ez zaizkionak bertan behera uzten ditu, atsegin zaizkionez ez da asperter, jolasako moduak aldatzen eta asmatzen ditu hobekienik dotozkion eran, eta abar.

Egoera hau antzu eta hutsa bihurtuko ez bada, nola halako disziplina bat behar du haurrak.

Baina azkenean soluziobide bat aurkitzeko honelatsuko galderek sortzen zaizkigu baruan: haurra geldirik eukitzea zer egin dezaket? Nik nahi dudana eran jokan dezan zer egin behar dut?

Gogozko ez zaigun egora bat aldatu nahi dugu, guri dagozkigun neurriko jokabideak ezarriaz, eta haurra bera kontuan hartu gabe.

Disziplina lortzeko erabiltzen den bidea kanpotik ezartzen den zerbaite izaten da, noski, Halere haurrak eza-gutu behar ditu norma hoiak; berarekin erabaki beharko dugu jokabide hau ez dugula onartzen eta beste hura, berriz, hasi nahi bakarrik. Guk ere geure jokabideak neurri hoietara moldatu beharko ditugu, ordea. Zabal ala estu jokatze hori ez daiteke gure umorearen arabera izan. Ezin daiteke eguraldia bezain aldakorra izan.

Egunero gertatzen den zerbaite go-

gora dezagun: jostailu denda baten aurrean pasatzen da egunero haurra bere amarekin. Eguneroko sesioa: negarra, kasketa, zapata... jostailu bat nahi duela eta, Amaren jokabidea: gaur belarrendoko bi-
zia ematen dio; bihur, entzuzgor egizu-
ez, ez dio jaramonik ere egiten; etzi, jostailua erosi egiten dio ba-
kea eman dezan.

Hauraren burutazioak: a) negarra egiten eta kasketa harrapatzen jakitea arma ona duk; b) haundien erantzuna desberdina eta nahasia duk egun batetik bestera; d) umore ala aldatze txarrez denean belarrendokoak bana ditzake zirti-zarta.

Arau eta erabaki batzuk badirela eta geuk ere hoiaren arabera jokatzen dugula jakin behar du haurrak. Halere, haurrak, bere martingalak eta joerak aterako ditu berearekin irten daitekeen ala ez ikusteko.

Honela koetan ez dugu amor eman behar. Haurra, bere une hartako zorritxarean, lasai eta baketsu, uztea da onena. Pasako zaila. Jakina, zenbait aldiz, batzuekin aldatu egin beharko da jokabidez. Baina gurasoek lagundurik egin dira «haur zailak» honelakoak, gehienetan, Gurasoek aztertutako behar duen jokabidea honelakoetan.

Bestalde, hauraren nortasuna ito eta desegiteko arriskua da, gehiegi eskatzen baldin bazaila. Haur kezkatu eta beldurti askoren artean gehiegi eskatu izanaren gaitza nabarmena dateke. Estuegi edo buruzpi-
de aldakorrez jokatzeak bere burua-
rekiko ustea eta segurtasuna gaitze-

ko arriskua dakarkio haurrari.

Bere buruarekiko ustea eta segurtasuna beharrezkoa du haurrak autodisziplina bat lortzeko badi. Eta, hain zuzen, disziplina autodisziplina bilakatzen denean da bere buruaren jabe. Orduan alortzen dio bere buruari duen balihoa. Atsegin zailon zenbait gauzari uko egitea dela disziplina, ikusi beharko du. Ez disziplina bera, berez, helburu delako, beste helburu batzuk lortzeko bide edo helbide delako baizik. Bere gogoz onartu eta erabaki beharko du, beraz, zertan nola joka.

Hau piskanaka ikasiko du: bere nortasunaren, askatasunaren eta bere buruaren jabe egiten ari den neurrian. Bere ahalekinak eta dohaiak ahal dituen gehienik aberastu eta erabili behar baldin baditu eta helburutzat bere heldutasuna eta zoriona baditu, bideak jarri beharko ditu.

Ez da beste azterkeriarik eta sorkerkeriarik. Ez da beste ukendurik. Hortan datza autodisziplinaren balihoa.

LUIS MARI SATRUSTEGI

GIPUZKOAN LANTOKIAK MURRIZTEN

Lehendabizi, Gipuzkoako herriaren jendaketa aztertu dugu. Honek —hasera honek— baditu bere arrazoi garbiak. Lehengo, indar produktiboen artean, gizakia eta bere lan-indarra da egile nagusia, eta ekonomia bizitzaz aztertzen hastean bidezkoa da jendaketaaren mugidari lehenik behatzea. Bigarren arrazoiak, berriz, hau da: estatistika aldetik, demografiarekiko berriak, garbiagoak, osoagoak eta zehatzagoak ematen zaizkigula beste edozein aldetakoak baino.

Metodo honek —hots, jendaketaaren azterketatik hasiatek— bere fruituak azkar ematen ditu, gainera. Gipuzkoaren azkenaldiko zero-hazkundearen sustraiak aurkitu nahi gaituzke. Bada, argia berehalako piztu zaigu, demografiaren azterbidean lehen urratsak egin ditugun bezain laster.

Eman dezagun bertatik egin dugun aurkikundea. Xehetasunak etorriko dira ondotik.

Aurkikundea hauxe dugu: 1971-73 aldi honetan, Gipuzkoan lanean jarria dagoen nahiz lanean ari den jendakia gutitu egin dela. Gertakizun honek hain garrantzi handia du ze behin eta berriro azpimarkatzea merezi luke.

Beha, arren, patxadan ondoko lumeroei. Lumeroei, harik eta lumero ximpleenak ere, irakurtzaila askori atzera edo eginarazten diote. Hori, agian, zeragatik izanen da, alegia, bere denboran retorikak lumeroak arbulatu egin dituelako. Baina, retorika alde batera utzirik bihur gaitzen geure bidera.

Arren, ongi behatzeko eskatzen nizan lumeroak hauetxek dira:

1970 urtean:	270.015	gizaki lanean ari
1971 urtean:	271.044	» » »
1973 urtean:	257.869	» » »

Begien aurrean dugu, bada, hain esanahi sakona duen lumero andana. Gipuzkoan, 1973 urtean jende gutiago ari da lanean 1971 urtean baino. Honek esan nahi du, beraz, lantegiak hetsi, lantegiak hestutu, lantokiak murriztu egin direla. Hara hemen, dagoeneko, arazo bizi bat eskuen artean.

Nola gertatu da, eta ze indar izan da lanean jarria (nahi baduzu «okupatu» esan) dagoen jendaketa gutiago arazi duena? Arazo hau hainzakotzat eta kontuan harturik, beste galdara bat sortzen zaigu bertatik: denbora berean jendaketa osoak ze bilakaera izan du edo ze mugida egin du Gipuzkoan?

Lanpostuak gutitu egin dira, baina jendaketa gehiagotu, ugaldtu egin da. Honela ez da misterio, Gipuzkoako familia-errenta jota geldirik egotea. Txit zaila bait da —nahiz ez ezina—, laneko jendea gutiago eta herri-jendea gehiago izanik, guztiztat eta bakoitzaren-tzat produzio ugariagoa ateratzea.

Berriz ere, hona hemen argitasunak lumerotan:

Gipuzkoako jendetza:

1969:	606.572	bizilagun
1971:	639.261	»
1973:	661.141	»
1969-71 aldian, ehuneko	5,4	ugalmena.
1971-73	»	3,4 »

Oraino, berezko ugalmena baino handiagoa dugu Gipuzkoan jendetzaren ugalmena. Beraz, urte bi horietan ere jendetorria jasan dugu Gipuzkoan. Bistan dago, halabaina, gure probintziako jendetzaren higadura bere oreka batetara heldu hurbil dela. Agian hau optimistaegi izatea badaiteke. Izan ere, lantokiak ugaltze ez badira, jendetza bera ere, gainbeheraka hasiko da laster, urte asko baino lehen. Hau ez bide da gertatuko, lanbideak hestutzen ez badira. Beraz, badaukagu ze azter. Nun, ze abar eta ataletan gutitu dira lantokiak?

G. ANSOLA

URTE BERRI!

ETXE BERRI!

eguberri-zozketa

ETXE BIZITZA

AUXÉ DA ÉGOKIERA EDERRA!

DONOSTI-AURREZKI-KUTXA'k, bere bezeruen artean eta zozketa bidez, MILLOI BANAÑO BOST ETXE-BIZITZA banatuko ditu.

Aurreratu dirua, saritu dezakezu zeure burua, ta...

URTE BERRI, ETXE BERRI!



Donosti-Aurrerki Kutxa

JOSE ZINKUNEGIREN

OPTIKA DONOSTIAN

URTEETAN LANEAN OHITUA

Hernani, 4

DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10 • Urrutizkifia: 41 77 51 • Etxekoe: 42 27 00 • DONOSTIA

IPAR EUSKAL HERRIKO BERRIAK

IPARRALDEKO EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Euskal iparraldean bizi diren idazleek eta bertakoek, elkarte bat egin dute euskararen alde. Hain beharrezkoa den euskara batuaren alde lana egitea da iparraldeko euskal idazleen elkartearen asmo handiena.

Bai, hain beharrezkoa den euskara batuaren indartzea eta zabal-kundearen lehen bait lehen lortzeko, idazle hoiek elkartzea erabaki du-te. Nor da gure artean euskara batuaren beharra eta premia gorria ikusten eta desiatzen ez duenik oraindik? Halere, euskara batua, Aita Villasanteri behin batean entzun nion bezala, gramatikoki eginda dago, nahiz sozialki egiteko izan. Eta delako gizon ospetsu berari, egun hartan, entzun nion haxe ere: Euskaltzaindia egin zenean, euskara batua egitea zen orduko euskal idazleen lanik nagusiena, eta hori lortu ez bazen ere hortarako, gramatikari dagokienez behintzat, puntu bereziak eta oinarrituak ipiniak izan ziren. Hainbat urteren ondoren, delako puntu hoik ofizialtasun mailara altxatuak izan dira. Orain, zioen lehendakariak, euskara batuari egunoroko gaiak ibiltzeko ahaltasuna lortu behar zaio.

Eta gure egiten dugu euskaldunok euskara batua sozial mailarai-no altxatzeko? Euskara hitzegitea da gure egungo premi gorria, eta ez da beste premia gorriagorik eta estuagorik euskara batuarentzat. Eta euskara hitzegitea nork debekatzan digu, egun behintzat, gure inertzia baino?

Hil honen 29an bilduko da iparraldeko euskal idazleen elkarte, Baionako Erakus Tokian. Egun hori adieraziaz, honako hiru puntu, guztiz borobilak, agertu ditu delako elkarte berriak:

- 1.—Euskaltzaindiaren erabakiek ez dute sekula indarra izan, guk idazleok erabiltzen ez baditugu.
- 2.—Orain arte, eta gaur berean ere, nor bere aldetik ibiltzen gara; hemendik aitzina ez ote genuke elkar gehiago eza-gutu eta lagundu behar?
- 3.—Idazleen elkarteak, nahiz ez alderdi politiko bat izan, bere iritzia ager lezake Euskal herriko goiti beheitei buruz.

Hiru puntu hoik bi idazle handi diren Txillardegi eta Landartek zinatut dituzte. Deia euskal idazle guztiei egiten zaie, idazle gazte eta aurrerazaleei batipat.

DONINABANE LOHITZUNEN, ABENDUAREN 5EAN
URZIKENEN LEHEN EMANALDIA

Berriki sortu den iparraldeko abeslari talde berriak, hots, Urzikenen auzalduko du lehen aldiz bere saialdia abenduaren 5ean, Donibane Lohizunen.

Zai dago hemen jendea delako Urzikenen saialdi berri hori ikus-teko. Beraz, datorren hilaren bostean eta itsasaldeko herri hortan eman den saio hori ongi etorria eman nahi diogu, eta bide batez zoriariak bere egile guztiei.

«GURE HERRIA» 75ko BIGARREN
ALEA KANPOAN DA

Duela aste guti «Gure Herriaz» mintzatu ginen. Orduan genioen, beste gauza batzuen artean, «Gure Herriaren» 75ko lehen alea, nahiz neke handiz, atera zela.

Gaur, berriz, esan behar dugu, la urtearen amaia heldu delarik, bigarren alea kanpora dela. Nekea arindu ote da?

75ko bigarren alearen aurkibidea honelaxe da:

- 1.—Les basques en Pays cathare.
- 2.—Euskaldunak harri gizon.
- 3.—Joan Huarte de San Juan.
- 4.—Hiru pindarrezko eraztuna.
- 5.—Une fois à gravir les montagnes ou les croix de Moustuly.
- 6.—Biographie sommaire.

Aldi hartan, duela aste batzuk alegia, esandakoa berriz esan be-harrik ez da.

Aldi hartan, ordea, esan ez zen zerbait esatea ondo izanen da gaur esan nahi dugunari loturik dagoelako.

«Biographie sommaire» delako hartan, 75ko lehen alean alegia, «Sei idazle plazara» liburuaren eta azken denborako beste euskarazko liburu berrien kritika batzuk ikus zitezkeen. Alde batetik, euskal liburu batzuez frantsesez idatzitako kritikak; eta bestetik, zer nolako kritikak egungo euskal aurrerapide sozial bat eman nahi den mementuan, orain urte asko izan balira ere kritika hoik...

«Biographie sommaire» hontan, 75ko bigarren alea dela eta, le-hengo alean bezala egungo euskarazko liburu berrien kritikak azal-tzen dira. Bi alditan, idazle ospetsu eta handia den Alta Lafittek zi-natuak dira «Bibliographie sommaire» horetako idazlanak. Oraingoan, Xabier Leteren poesi liburuaz esaten dituen gauzak, hara egiaz esa-ten diogu idazleari, nork belarri onez entzun?

«Sinisten dut egun batean hilen naizela» poesia ezaguna euskal-dunon artean.

Zer esaten du esan behar ez zenik? Gehiago ez esatea baizik ez da izan poetaren errua, baldin errudun izan bada.

URZOLA

Euskal Literaturaren lehen estadistika

EUSKAL LITERATURA NUMEROTAN

Egilearekin elkarrizketa laburra

Durangoko Liburu eta Disko Azokari buruzko informazioan barrena aipatu zen bezalaxe, li-buru erabat interesgarri eta ga-rantzitsua gero, Ibon Sarasolak azken honetan eskaintzen digu-na.

LAN objektiboa, ezin guti beza-lakoa. Ibonen estadistika eta portzentaien hoztasunaz euskal literaturaren ikuspegi kuantitati-bo bat azaltzen du irakurleari nork bere ondorioak ateratzeko aukera utziz.

Azterketarako muestrak bil-tzean, hiru epe hautatu ditu egi-leak, epe bakoitzeko bi urte kon-tutan hartuz: gerraurrekoa (1934-35), gerraondokoa (1962-63) eta gaur eguneko (1972-73).

Hitzurre labor labor baten ondotik, **Liburu Produktzioa, Eus-kal-Liburgintzaren gai-klasifika-zioa eta bere eboluzioa eta Idaz-legoaren Estruktura** epez epe gonbaratzen ditu, epe bakoitzeko ezagugarriak, literatur sailen abidea, idazleen estatua, adina, estudio mota eta beste hainbat xehetasun elkarri parekatuz.

Hasera-haseratik nahiz gaine-rako kapituluetan, Ibon zein ma-terial eta kriterioz balaitzen ari den aipatuz doazigu, datook eta berauek sortarazten dituzten on-dorio grafikok hogeita hamar koadrotan adiaraziz.

**Euskararen Batasunaren Ego-
era eta Euskal Literatura Zaha-
rreko Liburgintza** direlaokoa osatzen dute gure artean antze-

korik ere ez duen lehen saio hau.

● **KRISELUK** argitara eman duen liburuxka hau, inork la-burtu eta aipatzeko baino ira-kurle bakoitzak nork bere azter-keta egiteko gehiago da.

Gure aldetik pare bat koadro azaltzen dugu, kazetari lantxo honek tokiz eta helburuz bere mugak dituen gero. Bata, hiru epeok elkarrekin parekatzen di-tuena geuk egindako montaje bat da, zenbait dato adiaraz-eraz han hemenka bilduz. Bes-tea, euskararen batasunari bu-ruzkoa, egileak burututako ho-geita hamar hoiatik aukeratuta-ko bat da, hauzi konkretu ho-rretan guztiz esankorra dela-koan.

EGILEA MINTZO

Bat ezezik, bestelako koadro guztiak ere zein baino zein esan-korragoak dira. Batek ez daki zein litzatekeen denetarik adia-ragarriena, eta egileari berari

EUSKARAREN BATASUNA ETA

IDAZLEGOAREN ESTATUA

JOKAERA	Apaizak		Sekularrak		Orotara
	N.º abs.	%	N.º abs.	%	N.º abs.
Batasunaren aldekoa	16	57,1	27	79,4	43
Batasunaren aurkakoa	12	42,9	7	20,6	19
OROTARA	28	100	34	100	62

galdetzea erabaki dut, telefonoz baino ez bada ere:

—Behar bada, saiolarik ho-rreri gazteak izatea. Euskal He-rriko saiakera egileen adin-erdia kontutan hartzen badugu, agian munduko gazteak ditugu. Ez da batere normala saiok horren idazle gazteek egitea. Honek zen-bait problema planteatzen dik, hizkuntza ondo ez menderatzen, landutasun faltarena eta.

—Hire liburuan nolabait aipa-tzen duk, euskal literaturak, al-derdi kuantitatibo batetan, goi muga jo duela. Saturazio bate-tara iritsiak garena, alegia. Zer esan nahi duk?

—Ba, horixe, egoera aldatzen ez den artean behintzat, urtero-ko produktzioa nekez ugalduko dela. Nere teoria hau bazirudik balezu dela. San Martinen dau-toel buruz, 1974 urtean argitara-tu ziren liburuk 1973koak baino gutiago izan zituan.

—Zergatik egin duk lan ikara-garri hori, literatur-zaleatasunez, abertzaleatasunez, hire ikasketa-rako baliagarri delako ala...?

—Lehen eta behingoz, lan ob-jetibo eta numerozale nazelako. Nik neuk galdut samara ikusten diat neure burua baldin numero konkretu batzuk aurrean ez ba-ditut. Susmoak eta usteak baino dataok nahiago zetat. JAKINEN zerbait aterata nian lehendakik, eta haren arrakasta ikusiz gero ba...

—Zenbat ordu egin duk horre-tan?

—Puff... ez zekiat... pilo bat...

—Hori ez duk, horratik, nume-rozale baten erantzuna...

—Zer esango deuat ba... Den-borarik gehien pentsatzen behar izan diat, katean, etxean eta non-din. Konta ezin haina. Mues-trak lortzea eta materiala finka-tzea izan duk luzeena. Manterola liburutegian, San Martinek in-kartaz, Uda Unibertsitatean... Liburu idaztea baino alde az-urretik prestatzea izan duk askoz ere zailago. Hirurehun... laure-hun ordu? Gutienik... auskalo zenbat!

—Antzeko zerbait gehiago egingo ahal duk?

—Egiten ari nauk. Euskaldu-nok zenbat garen Irizarrek bil-du dituen datocek ballatuz eta hoi-tan oinarrituz, euskaldun ur-banoa non dagoen kokatua az-tertzen ari nauk, bost mila biz-tanletik gorako herri multzoak kontutan hartuz. Euskalkien ko-katzea eta beste hainbat ondorio aterako dituk.


—Noiz hator Barzelonatik?

—Gabon aurretik, San Tomas egunerako, agian.

L.A. ARANBERRI



Donosti-Ciudad de la Cultura



EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azkial
Ongarri ta abonak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira Joan
etorriak
Baserriaren alde



YOGUR GURELESA



GOGOZKOENA

NEKAZARITZA AN ETA EMEN

Jose Alkiza


BEHIAK IKULLUAN?

Edozeinek daki behiak berez, jatorriz, mendian jaio eta bizitzeko abereak direla, eta bizi ere mendian bizi zireen lehen. Orain, ordea, gure esnebehiak gehienak jaio, ari eta bizi ikulluan egiten dira, eta zenbait etxetan, ez dira atariko belazera ere ateratzen beren bizitzaz guztian.

Alere, askok uste duten baiño berriagoa da Euskal Errian behiak erabat ikulluan eukitzeko ohitura orain; oraindik ere bizi baitira, behiak ia urte guztian larean erabiltzen zireen garaia ezagutu zuten aitonak. Neguan kanpoan ze janik ez zegoenean bakarrik eukitzen zituzten atera gabe «ote joa» emanez. Gaurko behi pinto ahul auek, lehenengo behi gorri gogor alekin trukatu zituztenean, asi ziren, obe beharrez, behiak ikulluan gobernatzeko. Epelean goxo goxo eukita, osasuna obeto zaintzen zalela eta esne gehiago emango dutela, uste baitute.

Asera artan, jaten etxean ematen baitzaizaien ere, iturrira edanera zera ateratzen ziren; gero, etxeetan ura jarri zenean, atarira bakarrik; orain, ganbelan bertan jarri zale ura, nahi dutenean edan dezaten, eta ez dira andik mugitzen.

Urte guztian ikullu zokotik atera gabe egotea ez omen da «bizimodu naturala» behientzat. Ez datorkie ondo. Preso egon



Orrelakoetan ordea, leku gutxiegi baldin badaukate pillae-gian daudelako burrukan asten dira elkarrekin, jokariko grina indartzen zale eta elkar probatu arteko onik ez dute izaten, nor den nagusi eta nor aren morroi ikusi arte.

Behiak negu guztian ikulluan euki eta udaberrian larrera atera dituen edozeinek ikusi du lehenengo egunetan saioak egiten dituztela; egun gutxi barru, ordea, behiak pakeatzen dira. Onek esan nahi du, elkar neurtu dutela eta bakoitzak badakiela zein duen nagusi eta zein mendeko.

Menderatua, morroi geratzen da, nagusiak baiño gutxiago jaten du, edota, arek uzten dienean, baztertua eta beldurrez bizi da. Ola, taldeko behi batzuk, eman dezaketen guztia eman gabe gelditzen dira.

Adarrak moztu edo kentzeak badu bentaja: elkarri ez diezaioketela min aundirik eman. Alere, adarrak kentzea bakarrik ez da nahikoa, ikulluan eta esparruan berak nahi dutenean ibiltzeko aintzat leku utzi behar zale, eta batez ere, denak batera lasai jan ahal izateko aintzat leku eman. Zoko, ziriztu eta pillareak zenbat eta gutxiago, obe.

Behiak eta otza. Orain arte egin diren esperimendu guztiak, behiak otzari gogor egiten diola eta otzarengatik ez duela sufritzen erakutsi dute.

Ikusten denez —9° beherako

otzetan egon ezker, esnea gutxitzen asten zale; gehienetan otzak baiño beroak askoz kalte gehiago egiten dio. Beroa 25° tik gorakoa bada, esnea nabarmen gutxitzen zale.

Alere, gure arteko asko, ikulluko ate eta leihoak itxi eta behiak bero eukitzen salatzen da. Nik neronek ikusi ditut, ordea, behiak libre zeuden tokian eta ikullu barrura joan zitezkeela, atariko izotzetan etzanda gaua pasatzen. Eta esne behi galantak ziren!!!

Behiari berehala erasaten diolana aizea da, aize otza, edota aize eta eurizko erauntsia. Minbera eta sentikorrak da aizearekin. Orre-gatik behiak bere gisara dabilenean leku babesa billatuko du, eta orre-gatik aintbeste kalte egiten die ikulluetako korrientek. Onekin bai kontu audia euki behar dela eta ez otzarekin.

Ona ba, zeuk esperimenduak egiteko egokierarik ez duzun ezker, bestek egifetatik ikas zenezakeena:

—Behiak libre nahi du eta ez lotuta, derizkionean ibili, derizkionean etzan, derizkionean jan eta derizkionean edan.

—Lasai nahi du eta ez elkarren gainean pillatuta.

—Nagusi nahi du bere tokian eta ez besteren morroi.

—Otzari ez dio beldurrik baiña aizeak asko pena dezake.

Azkenean iduritzen zait badaula gure antza; ala gizonok ere mendian libre ibiltzeko jalo ote gifien?

BELARRAREN ZUMOA

Duela urte bete edo bi ganaduen pentsutarako arrai iriña ahtuta geratu gifien, Perun antxobarik atzeman ezin zutelako. Ordurarte pentsuak behar dituen proteinak arraiñetik ateratzen ziren. Antxobarik ezan, babari eta batez ere sojari eldu zitzaion pentsua proteinaz osatzeko. Iparrameriketarik datorrigu soja ori; ganaduak behar bezala bazkatzeko garrantzi izugarria du; baiña garesti jotzen du...

Beti zer asma ari diren gizon oiei, balarrari zumoa kendu eta aprobak egitea bururatu zitzaion.

Bi txerialde jarri zituzten. Bata garagarra eta arrain iriñez bazkatu zuten. Bestea, berriz, garagarra eta belar zumoz. Ondorena, belar zumoz gobernatzeko zuten taldeko zerretik besteak bezala irabazten zutela.

Baiña ez da ori bakarrik. Zumoa guztia kendu eta geratzen den belarraren patsa, ondakiña, ardiel eman zieten. Orduan ontaz oharitu ziren; pats ori, belar ondura bera baiño oba zela ardientzat. Izan ere ardielk gogotik jaten zuten eta belar ondura janz zenean baiño gehiago irabazi zuten.

Bigantekin ere egin zuten aproba. 12 bigantxa pats orrekin bazkatu zituzten; beste 12, berdintsuak, larrean jarein; eta beste 12ri belarra ebaki ala, ganbelara ekarri. Gehiena patsa janz egon zirenak irabazi zuten.

Orain, beraz, belarrari zumoa kenduko dion makineria etxean jarzea nahikoa da proteinaz osatutako pentsu ona etxean egin ahal izateko. Bixtan da, oraindik Ingalaterrako nekazariak, euren ere, ez dutela olako makineriarik etxean. Alpa makintxo fabrikek jarriko dituzte makinaok lehenbizi. Izan ere oharitu dira alpa makinaz onduta jartzen baiño errexago dela lehenengo zumoa kendu eta geratzen den patsa ontzen. Gainera zumoa eta patsa biak salduko litzukete; edota, askotan pats ori, ihartzen ari beharrik gabe salduko lukete; ensilatze oso ona baita.

ARDI ESNEA SALTZEKO KOOPERATIBA

Legez ontzat emana eta sortua dago Medina del Campo, Valladoliden, ardiesnea saltzeko kooperatiba. Asera ontan 109 artzai dira sozio, eta oraingoz 1.386.900 litro ardi esne eramango dituzte fabrikara. Luzaro baiño lehen 4.000.000 litro saltzera iritxiko direla espero dute.

Behi esnea ere artuko du Olmedon egitera doazen gazte fabrika orrek eta beste 168 sozio behizaleak dira. Urtean 3.800.000 litro behi esne eramango dituzte.

Olmedon gazte fabrika ori egiteko lurra, ura eta argia, aiuntamentuak eman dizkie. Obra 30-35 milioi kostako omen da. Obrak egiteko eta makineria jartzeko laguntza IRIDATIK atera dute eta presuposituaren % 30 subentzola da.

Ona emen urtebete die gehiagoko billerak, aruntz eta onuntz ibiltzeak eta atejotzeak sortu duen fruitua. On delzuola.

POLONIATIK ESPAINIAKO ZEZENAK EROSI DITUZTE

Ori ola esanda edozeini datorriko burura Polonian zezenak toriatzen asi ote diren. Ez da orrelakorik. Zezenok txarolesak dira. Eduardo Barreirosek 8.000 buru dauka bere Ciudad Realgo granjan. Gehienak txaroles puruak ditu; gainerakoak bertako arrazako txarolesekin gurutzatuta. Orain Poloniatik etorri zaizkio zezen eske eta ara saldu du talde bat.

EULIAK GALTZEKO PILDORAK

Euliak galtzeko botikarik onena negua da, baiña... baserrietan euli enparagarri franko izaten da zenbait garaitan, ikulluan ximaur pillak euki ezker omenas.

Orain arte sukalde eta abarretan zintak jartzen aritzen gifien; baiña alere batzuk akabatu ainean berriak sortzen dira nonbait, kas-ta ugaria izaki.

Ona emen sistima berria euliak galtzeko: Behiel pastilla batzuk ematen zaizkie jateko, pentsuarekin batera oharitze aritzen dituzte. Pastilla oiek behiari ez diote ezer egiten, ez diote ezertan erasaten, ez dute esnean ezertan arrastorik uzten. Pastilla oien sustantzia eta indarra ximaur pillara doa behiaren gorotzarekin batera. On asten da lanean, an galtzen ditu, ez euliak; baiña bai, euliaren arraultzak eta orrela ez da eulirik sortzen.

Pastilla oiek «Baygon» izena dute eta Espainian Jasala-Bayer etxeak saltzen ditu.

Ori da belar txarrak sustraitik ateratzeko. Datorren uda baiño lehen eskuratu beharko dituzu, orratik, pildora oiek, dioten bezain onak ote diren ikusteko.

TXAHALAK GORA

Bizitarako ganadua gora joan da; baiña baita aragitarako ere gora egingo ote duen otsak dira. Gehienak 154 inguru ortan badabiltza ere, badira 157 artutakoak. 160 eskaintzen badizue ez kejatu behintzat.

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 48

GAZTEIZ (Vitoria)

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Jenari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear da baserriar burutsuak, Berezitako aragi pillak; gainera esne putzuak, Oiek guztiak berekin dituzte Fanderiako pentsuak.

FANDERIA

ERRETERE

ZERUKO ARGIA

Hartzeari zabarkeriaz utzi baze-nion.

Has zaitetz berriro hartzen.

behar orrek ajeak sortzen dizkie, gaitzak erraxten, bizia laburtzen, eta azkenik, etekin gutxiago ematen diote nagusiarri.

Behiari berez dagoekin bizimodua, egiten utzi ezker: egunean 4-9 ordu larrean pasatzen dituzte.

beste 4-8 ordu ausnarran

beste 9-12 ordu etzanda.

Egunean 1-4 aldiz edaten du ura, eta dabilela, 3-5 kilometro korritzen ditu.

Orra or zer egin behar duen behiak bere gustora bizitzeko. Ez didazu esango gaur bizimodu zeharo desberdina eginerazten ez zaiotik.

Asteko, behiak bere gisara utzita 4-5 kilometro korritzen baditu egunean larrean dabilela, katean lotu ezker bat ere ez. Orduan azkazalak luzatzen eta okertzen zaizkio, belauburuak aunditzen, eta abar... gainera zementu gogoraren gainera egon behar badu, edota, ziribatzen gaithean, parrilan; galxoari ez zale faltako oinetako miflik. Orbel eta ximaur gaithean eukitzen baduzu berriz, bigulfiagor egongo delata, orduan azkazal artea egosi egiten zale, eta egun guztian bere eginkarien klarsa usnatzera behartzen duzu.

Gaurko baserriar aurreratuenak, behiak lotuta ez baiño askatuta eta esparru batean sartzen dituzte; ardiak bezala edo —eta jeizteko bakarrik trabatzen.

On Kosme ta Gandhi



Ez dugu ba, gure On Kosme, Santuen «Erreztazaille» aundi oietakoa. Noiz edo noiz entzun izan oidiot: «Kristorekin dauka- dan konfiantza eukita, zer arraitorako molestatu bear dizkiat San Krispin eta San Antolin?».

Eredu eta bizitzarako exemplo on bezala, maite ditu santuak On Kosmek, baiña bere Aita Jaungoikoaren aurrean bitarteko daitzen, ez deritza ain interesgarri. Batzuetan gurtz aldrebe- sa da gure On Kosme; Kristo- ren exemplo onak baino Santuenak batzuetan ongarrago za- izkiola esaten ez du bada? Egun auetan, ez zegoen gozo On Kos- me. Erreuma zital batekin mi- niaren-miñez, lur jota zegoen eta Kristok ber berak emanikako gaitza balitz bezala, mintzatzen zitzaion: Ogei egun auetan or euki nauzu, Josephiñaski zioen bezala, atze txar batek eskubiko anka oso-osoara arrapatzen zidala. Aliza txarra... Euskaldunentzat gaitz guztiak; izan ere, aize txar- rarak dira... Beste munduan dituz- un euskaldun guztiak aize txar- rarak eramanak dira. Oñafiez oean egin ezin eta, gorputz az- pirako, ego gorroga bear nuela eta, an jarri zidaten koltxo az- pian, orain dela eun urte baino geiago, korupean zegoen ate zaar bat... Zutik ezin egin, pauso bat egiteko izarrak ikusi bear, ta... aldamentik, Maxepa atse sori- gin berri-suak ekiden ez dit ba... «BATERE PAZIENTZARIK EZ DAUKA, ON KOSME. NIK ORAIN OGEI URTE EUKITAKO MINEKIN, ZER EGINGO OTE LUKE BEDORREKO?».

Esan bazion, esan zion ba. Laster eldu bear izan zion Maxepak ate bideari, baiña laster baretu bearrean arkitu zen bere biotz barnean Kristoren abotsa en- tzun zuen: «Kosme, Kos- me, zakarkeria oiek, noiz utzi bear dituk alde batera? Oñafiez- an arkitzerakoan, begira ezak gurutzera, an ikusiko nauk ma- ltasun gozoz, nere odola gizonen- tzat ematen eta orduan gizonen- tzat jantziko aitz». On Kosmeren erantzuna, gurtz lotsagabea izan ez zenik, ezin ba uka: A Jauna, ni ere Kosme izan bearrean, Kristo izan banintz, beste orren- beste egin aal izango nuen. Ta... zuk, Jauna (barka atrebentzia) Kosme izan baziña, Kristo izan bearrean, nola jokatu ote ze- nuen? Job Santuaren pazien- tzia, ni bezala gizon utsa zela- ko, bere eramankizunarekin utzi zidan exemploak, arrakasta eta impresio aundiagoa egiten dit. Aitarean aurrerako, Zu bakarrik aski zaitut; baiña nere zabark- rietarako, Santuen exemplo ona bearrezkoa zait. Zu, Kristo, Ja- inko izanik, aski zaitut nere bi- tarteko izateko Aitarean aurrean; ain justu ere, Jainko zarelako or- dea, ni bezalako gizonen exem- plo onen bearra daukat, izatez aiek bezalakoa izanik, egite bi- kaitzez ere, beren antzekoa izan nadin.

—oO—

Zorioneak Kristoren antze- ra, lurreko bizitza, onegiten da- ramatenak. On Kosmerentzat ez dira santuak Eliz barruan arkit- zen diren gizon eta bikaiñak bakarrik; budista, maomatar edota, beste erlijio arteko gizo- nen artean ere arki daitzek. Bu- janda idazle argiaren irakurgai batek, burua piska bat naustu dio gure On Kosmeri. Gandhi In- diarren gizonari buruz mintzo zen. Orduak ona, jira-biraka, pentsakizun berdiñean murgil- duta darabilgu geure On Kosme: Gandhi, Santu aundi duk... Ogaigarren gizaldiak ezagutu duen aundienetakoa. Aita San- tuak kristau bat santu dela a- tortzen duenean, zer adierazten du? Aparteko santutasuna ziela. Bere birtuteetan besteengandik berezten zela. Zueran dagoela eta bere irudia aldarean ipini eta

ZERUKO ARGIA

Ordaindu gabe baduzu
Arren, ordain ezazu.

agurtua izan daitekeela, Jainko aurrean gure bitarteko delakotz eta guretzat bizitzarako exemplo on izan daitakeelako. Ta On Kos- me ametsetan bezala, bere bu- ruari diotsa: Ni Aita Santua ba- nintz, orain arte Elizan izan di- ren Aita Santu guziek egin ez duten gauza bat egingo nuke: Gandhi aldarean eraman, Gandhi mundu guziera aurrean, Santu aundi dela aitortu, zueran da- goela eta lurreko Eliz guzietan agurtua izan daitakeela.

Jokiñi beren barnea On Kosmekustu dionean, onen algaru urru- titik entzun zitekeen: «Baiña, On Kosme, Gandhi ez zen bataiatua, ez eta beraz Elizako seme ere. Indiotar Erlijio bateko gizona, Eliz Katolikoaren izenean, santu dela aitortu, eta kristaua balitz bezala «kanonizatu»? Ori, Eliz katolikoak egin ote dezake?

On Kos.—Ofizialki, kristau as- ko gaudet. Ta gure bizitzan, zer gaituk? Gandhi ez duk ofizialki kristau, baiña pentsaera eta ba- tipat bere bizitza, Kristoren an- tzeak ez zirenik ezin uka. Gandhiaren pentsakizunek Kristo- renak ziruditek: «Gizon bat, azken tokian, bere borondatez jartzen ez bada, ez dago bere- ztat salbamenik». Nere egite gu- ztiaren iturria, gizadiaren malit- sua da». «Denek, «EGILLE» ba- ten seme-alaba gara». «Indark- ria aberre legea da; indar ezaz jokatzek, giza legea».

Gandhi, bere bizitzan, Kristo- ren jarraitzaile aundi izan uan: Odol iurketarik gabe egin zian bere erriaren askatasuna. Arma indarrak baztertu eta izpirtuz- koen bitartez bere Erriarentzat askatasuna lortu zuen, Ingelesen atzaparretan zegoen Indiatarren Erria. Ez dik ordea inorentzat gorrotarik; «Olotzari esker, be- rrogei urte dira inorentzat go- rrotorik ez dudala», dio berak. «Indu Mahomatar eta kristauen arteko ikusi eziñak bukatu bea- rrezkoak dira» olu egingo dik, Gandhi aundiak. Espetxean ur- tetan eukiko diate Ingelez Agin tariek... 15 barau aldi izugarri, ia erlotzeraino iritzi arte, inge- lesen biotz gogorrik biguntzeko, egingo dizkik. Bere iraultza —re- boluzioa, maitasuneko izan uan: Besteen odol iurketarik gabe, beren buruak jarri arris- kuan, aberriaren askatsunerako; kooperazio eza Ingeles agintar- ien, erri ageriketa-manifestazioak errietan, oporrak, langilleen ar- tean eta bakeko bide auetatik, bere erriaren askatasuna ikusi zian. Bere azkena ongi dakik: otolizera zozala zoro batek tiroz il zian eta kito.

Jok.—Bai, Kristo bezala guru- tzean; Bere eriotz emalleengatik Kristok esandako itzak ongi da- tozkio Gandhiaren itzailleari ere: «Aita, barka ilzaiezu, ez dakite- ta, zer egiten duten».

Geiegitxo luzatzen ari gara, eta urrrangoan, gaia amaituko dugu.

AROSTEGIK

EUSKAL KAZETARITZA

Bizkor, egoki eta sendoa
izan dezagun

Egizu harpide berri bat.

ELIZAREN BERRI

ARANTZAZU ALDERA XIMELETA
GISA, EDOTA ERLE XURGALARI

«Arantzazu elizak 25 urte» irakurtzen dut urri- ko «Arantzazu» alean. Eta ene baitan. «hau duk urteen joan beharra» ateratzen zait.

Eta alpatu berri horren segidan, irakurle baten iritzia begiematen dut. Inolaz ere, urteen joanaren ondorengo egoera aldez aurretik dastatu nahiz: «Oregatik, gaur ere pake leku da neretzat» (Arantzazu inguruz zer derizkion galderari erantzuna da).

Aputxo bat lehentxeago, ordea, beste aldiz- kari batetan, «Teologia Beltza» delakoaz, «Iraultza Beltza eta kristau Tradizioa» delako artikulua (Se- lecciones de teologia, 55/1975) nuzun irakurria.


Eta txoke bat sortu ene baitan «Arantzazu» al- dizkari irakurlearen esarertxoak irakurri eta be- ste artikulua hori irakurtzeaz. Izan ere, «Teologia beltza» delako orri horietako esaldi mardul horie- rik asko etorri bait zait burrustan kolpora: USAn, patxada eta ordena esakunak, jende zuariaren lege- tara makurtzea esan nahi du (Beltzoi buruz). «Iraultza, iragan denborako ordena sakratuari desa- fioka ari zaion guztia da, hau da, zapaltzaile zuria- ren menpetasuna koloka jar erazten duena». «Egia iraultzailea da. Esan nahi bait da, egia hauxe da- karrela: mundua aldatu egin behar dela, ezin gera daitkeela beti izan den modukoa». «Beltzok, beltz izango bagara, iraultzaile bihurtu behar dugu».

«Zenbait teologo beltzek, partez bederen, Paulo Apostoluari leporatzen dio egungo zapalkuntza ideologikoko justifikatu beharra. Paulo izan zen es- klabari, beren jabeai obeditu egin behar zietela esaten ziena». «Ez da dudarik, Jesusen ebanje- lioa, Estatuaren interesak erlijio aldetik defendi- zeko hartu eta erabili izan dela». «Zoritxarrez, kristauak ez dira inolaz ere nabarmendu iraultzako ekintzak».

Hori eta gehiago dator «Selecciones» delako aldirikoko artikulua hortan. Eta hau eta Arantzazu aldirikoko gonbaratzean, txoke handia gertatu zait barruan. Agian, alde batera agi hartu ditut nola bata hala bestea. Baina, jazoera hor dago jaso nahi duenarentzat.

Baina, segidan, «Arantzazu» aldirikarian bertan (17. orrian) hauxe irakurri dut. «Frantzisko behar- tsuarekin eta sufritzen ari denarekin guztiz iden- tifikaturik ageri da; justizia sozialaren eta sen- detasun unibertsalaren saildua da. Frantziskok, besteren kontra baino lehenago bere buruaren kontra asaldatzen da: diruarekin, sasi adiskideta- sunarekin, bere harrokeriarekin hausteko adinako bihotza ukan zuen saildua dugu; Jainkoari eta gai- neratikoei leku egiteko, bere buruzak barnetik hus- tu zena dugu».

Noski, hau beste gauza bat da. Eta lehen alpatu



irakurleak zekarren hitza, eta esakuna, «pakea» alegia, ez da «pake merke» horietakoa, «bake bortitza» horietakoa baizik. Liberazioaren aldeko borro- kari darizkion horietakoa alegia.

Lehen alpatu «Teologia Beltza» delakoan dato- renaren arabera: «Berrito ere, zuriak dira belt- zai hori (bir adiskidekuntza edo rekontziliazio arazoaz dihardu) planteatzen dietenak; kolore des- berdintasunean oinarrituriko gizarte banaketaren erantzukizuna beltzek balute bezala. Etsalgaoren, arrazakeriaren eta gorrotoaren erantzukizuna beren gain dutenak, zera jakin nahi lukete: eta gu (bel- tzok) barkatzeko eta ahanzteko prest ote gauden... ahaldun edo botere erlazioak batera aldatu ga- be... Teologia beltzak, beltzen liberazioa bait du abiapuntu, ezin onar lezake inolako rekontziliazio edo bir-adiskidekuntzarik, zurien baloretan baka- rrik oinarriturik». «Rekontziliazio edo bir-adiskide- kuntzak zera esan nahi du: gizona ez daitkeela gizon izan, ez eta Jainkoa Jainko, arik eta zapal- tzen eta desgiztartzatzen duen orotatik liberatu ezlik». «Jakina, ezin ahanztz gitezen hontaz: zapaltzaile ez zalzkiela batera atsegin izango lepagogorrrak, eta ahal guztia eginen dutela halakoak isil eraz- teko».

AMUNSA

ZERUKO ARGIA
BIZKAIKO ERRI
AUETAN
SALTZEN DA:

MARKINAN
M. Loli Aginaga,
Artibay, 24

SONDIKA-ASUA
E. Astaria

LARRUSKAIN
Parrokia

GERNIKA
Ruiz Buetillo

ONDARROA
M. Zulaika

BILBAO
Libreria Armendariz
Dr. Arellano, 80
Libreria Azkategui
Cinturera, 4
Libreria Bilbaina
Plaza de los Mirros, 2
Libreria Verdes
Correo, 7

GALDAKANO
J. Altuna
Urretu, 34
ABADIANO
J. F. Zubero
S. Prudentia, 7

ITXEKO- ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE
ANROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten be'ezazu
ATOMIZADO LAGARTO — jabola erabilti beti
Eskuz be'ezabiltz, LAGARTO — jabola beaz dezu erosi
JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra
Etzeiko-andrearentzat neska merke egokiena.

¡JABON LAGARTO!

Transportes

azkar s. a.

ERAMAN-EKARRIAK, KAMIOT AUNDIAK

Barcelona Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostitik egunero:

Iruña, Bilbo, Gasteiz, Alicante, Elche, Elda, Murcia, Cer- tagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca.

Asteen Irutan:

Malaga, Sevilla, Jerez de la Frontera, Cadiz, Logo, Cor- ña, Orense eta Viguera Joan etorriak.

Hernanrako bide nagusian, ERGOBIA auzoan, DONOSTIAN.

Urrutizkiñak: 552650-552654

Apartado 1381

errenteria

GABON ABESTI SARIKETA
S.D.C. ERENTZAK ANTOLATUTA

Txapelketarako Baldintzak

1. Sariketa 1975 urteko Abenduaren 27an, arratsaldeko 7.30-etan, Fuegos Enparantzan ospatuko da.
2. Sariketa honetan nahi duten elkarteek eta abesbatzek parte har dezakete, bai ikastola mailan, bai lagunarte mailan, edo bereziki sariketa honetarako prestatutako taldeek, adinak mugatzen ez duelarik.
3. Talde bakoitza, gutxienez zortzi lagunek osatu behar dute.
4. Talde guztiek Gabon Abesti bi kantatuko dituzte. Askatasun osoz aukeraturako bi euskal abesti izan beharko dute.
5. Taldeak, musika tresnaz baliatu daitezke.
6. Talderen batetan abesbatza eta koral abeslariak dauden, gehienez hirutarik baten proportzioan beharko dute. (Ikastola edo ikastetxetako taldeek ez dute baldintza hau bete beharrik).
7. Epai mahaia, gure herrialde honetako abeslari eta jakitunek osatuko dute.
8. Epai mahaikoen erabakia aldatu ezinezkoa izango da.
9. Bertan parte hartuko duten taldeek, beren izenak Errenteriko Beheko Kalearen 12garrenan, Ereintzaren aurretik, Abenduaren 26an, arratskeko hamarretatik baino lehen eman beharko dituzte. Izena bai idatziz bai bertara agertuz eman daiteke.
10. Sariketa hau gerta dadin, gutxienez, lau taldek parte hartu beharko dute.
11. Epaiaren erabakia, alderdi hauek gogoan hartuz, eman go da:

Abotsak eta batasunak,	gehienez,	10 puntu
Gozotasun edo afinazioa,	"	8 "
Interpretazioa,	"	10 "
Esaseraren garbitasuna,	"	8 "
Lanaren zailtasuna,	"	8 "
12. Banatuko diren sariak:

Lehenengoak	6.000 pezeta
Bigarrenak	5.000 "
Hirugarrenak	4.000 "
Laugarrenak	3.000 "
Bosgarrenak	2.000 "
13. Herriko Ohi-turen arabera, egokienik jantziarik agertzen den taldeak eta abesti bitxiaen aurkesten duenak, sari bereziak jasoko dituzte.

pasai donibane

ERRETORE BERRIA

Joan den hilean, hainbat urte gure artean egon ondoren, gure herriko erretorea joan bazitzaigun ere, orain ordea, berria etorri zaigu. Manuel Balentziaga deritza eta itsaso apostoladutzan ibilia da orain arte. Zumarrak, jaitotzez.

Geure bizitza laburrean, apaiz talde batzuk ezagutu ditugu herrian. Talde hauetan, batasun eza izugarria sumatu dugu beraien artean, arrazoi hau dela edo bestea dela medio. Guk ez dugu, inolaz ere, esango, gorrotzo, muturka eta ezin-ikusiak bizi zirela; baina, beren artean, ordea, ika-mika dextente izan zutela, bai.

Orain berriz, epe edo etapa berria irakitzeko zaigu herriko elizan; herriko bi apaizek beraz, orain dute jator eta batasunean hasteko aukera ederra, arrazoi pertsonalak alde batera utziz.

Horra bada gure deia eta irrika. Eta gogoan izan bezato, geure herriko hau, euskaldun bezala jarraitu nahi dela eta apaizek ere, beren erresponsabilitateak badutela arlo honetan. Ongi etorria izan!

TOKIETARA JOAN DITUKI!

Azkeneko egun hauetan, Guraso Katoliko Elkarteak antolatutako, hitzaldi batzuk ospatu ditugu. Gaiak nahiko interesgarriak izan baziren ere (Seksu Hezibidea, semeen heziketa edo edukazioa eta abar), urrutiko xamar joan direla hizlari bila, deritzagu. Izan ere, konferentziak eman zituzten hizlariak, «titulu akademiko» gehiegi zuten. Bat,

Burgosko fakultadeko katedratikoa; bestea berriz, ez dakigu nungo Unibertsitateko (Euskalerrikoa ez noski!) Dekanoa, eta beste hura, «dechoko katedratikoa».

Geure buruari honako galderak egiten geniskion behin eta berriz: «Guraso Katoliko Elkarteak, ez ote dira urrutiko xamar joan hizlarien bila? Euskal Herrian bertan, ez ote dugu kulturaz hieki bezain ondo jantziarik? Ez ahal da egia borbila Lertxundi abeslariak dioena «Gure lurra emandakoa, gure lurrean gelditzen da»? Eta GU hemen, beti GU HEMEN? Ea bada gurasoak, hurrengorako «etxeak» ekartzen ditugun!

ARRANTZALEAK ITO

Azaroak tristuraz eta atsekabez bete du inguruko arrantzale zenbait familia. Izan ere, itsasoak haserretzen eta asaldatzen denean ez du barkatzen, topatzen duen guziaz irensten. Horra bada, «lezo» itsasontzian, bi arrantzale ito dira: «Marcelo» itsasontzian berriz, bat (Pasaiko «puntaseko» sarrerari) eta «Ipesa» deitzen den itsasontziak lau marinela galdu ditu.

Portuges, galego eta euskaldun arrantzale hauen familiakoei geure samina agertzen diegu.

INALURRETAK

abadiño

KORREOA

Industrializatzeko iraultzaaren arabera, ondutxo joan behar duen zerbiziotariko bat, korreoa da.

Ba, nik ez dakit nolakoa izan behar duen obete horrek, baina, Abadiñon oraindik ez dugu korreo etxerik. «Korrespondentzia» hartu nahi duenak, harategi batetara joan behar du, hori balta «korreo etxea».

Horrek beste hainbeste arazo dakartza, esaterako niri neuri, Durango bidailiko gutun batek urte bete iraun diti eskuetan hartzeko. Aspertu egingo nintzateke holako kasuak kontatzen, baina nola «ziurrak» ez diren ez ditut alpatuko.

Kontuan ukan dezagun hau

guztia, Barakaldoren hurrengo, «zona industrial» gehien duen herrian pasatzen dela. Entrepresak berak joango dira harategi-«korrespondentziaren» bila, beste toki askotan egiten duten bezala; baina baserritarrek zer?

Gogoan dut gaztetxo, «karterua» nola etortzen zen azkenengo baserriraino kartak (eta lokatzak) banantzen. Orain, bide onak eta automobilak diren garalan, zer? Tinbreak ez ote dute gasolinatarrako beste ematen?

ENTZUTEN DA BAKOITZIK

Aspaldidanik kanpoan zegoen

ikasle euskaldun eta abadiñotar batek, bere oporraldietan edo bategi herria etorri zenean, eta hainbeste denboran ikusi ez zuen herriar bat ikustean, arreta honaz agurtu zuen: «kako aspaldiko, ez haut ezagutu ere egin; jakina, bizar horrekin Marx-en antza duk».

Kanpotik direnez gero, nabaria da «internazionalismo» aren eragina. Ez zituen esan, holakoetan maiz entzun ditugun, «Sabin Arana dirudik» edo «Irragirren berdintsua hago» esaldiak.

Aspaldidanik gertatzen ari den egoera ikusi gero, ez da harritzekoa jarrera hori, «Nazioartezale» hauek askori galdetzen badiogu zerbait beren herriaz erantzun honekin geldituko ginateke: «Ba eske... jakina hori... orduan nik ba... esio, gauza asko ikusi behar da... Bai, ez da asto txikia hainbeste gauza ikusten ari dena eta zulo hori ez ikustea».

BASERRITARREN MORRONTZA NORAINO HELTZEN DEN


Ez dela denbora asko, laguna kin ordua jarrita nuelarik igan-

de goiz batetan —goizeko hamarterdietan—, ordu erdi luze itxaroten egon eta ez zelarik agertzen, jo nion tinbrea eta halaroren baten jaitzi zen.

Pasatzen dena zera da —hasi zen justifikatzen— normalki igandetan esnezaleari ontzia atez kanpo uzten diogu, ate joka bazterak esnatzen ibil ez dadin, Eta, noizpait, zerbaitegiatik, lehenago jalki behar dudanean, ez diot ontzia ateratzen eta hola naitaez esnatzen naiz. Gaurer berriaz, ahaztu egin zait operazio hori egitea. Baserritarra bera betiko orduan puntual etorriko zen baina.

Adiskideok harrotu gaitzen, oraindik zerbaitegarako gauza baikara. Baina morrontzarako izatekotan... ez dakit, ez dakit.

SAIBIKO ARTZADIVA



bigantxa

"Holanda-Frisia" jatorriko 6 bigantxa ernari



Donosti-Aurrerki-Kutxa
diru jartze epea: lotazilla'ren 31'arte

hernani

GAU IKASTOLA

Aurtengo ikastaroa hasia da. Bi talde behinik behin abiata dira lanean: Urumea eta Florida-koak. Harriburnioak, orain irakasleak prestatzen ari dira, eta urtearen hasieran ekingo diote euskara irakasteari.

Lantegi zabal hontan langile asko behar da.

Gaur irakasleak behar gorria dago nonahi.

Lan polita da ikastolan ibiltako neska-mutilentzat. Bi eza-gutuzen ditugu, eta lau-bost urte barru harrobi ederra izango da. Gaztetan alfabetatuak izango dute bentaja ederrik. Orain da urte arorik onena, euskaldun berriak sortzeko edo egiteko.

Azarotik Maiatzaren bukaera arteko zazpi hilabeteetan lan ederrik egiten ahal da.

Badiara euskara ongi txukundu nahieta Donostiara joaten direnak, Patxi Altunaren ondora.

Euskaldun berri izango diren guziet zorianak eta ongi etortria.

Noizko Euskaldun berri taldea? Hauek bezalakorik ez, euskaldun berriak egiteko.

Denon artean ez ahal dugu asmatuko ikastaro batean euskara ongi ikasteko metodoa?

AZERI EHIZA

Azeria aipatzerakoan jendeak parre egiten zuela sinets-gogor, zioen Amatiñok orain urte bete edo. Eta aipatzen zuten Santander aldean harrapatutako piztiak. Herminan ere badugu ehiztari iaioa sail hontan. Joxe Antonio Murua, Martindegiko haurzain bizi denak, bederatzi azeri haundi eta kume harrapatuak ditu Urriatik-Urriara. Joxe Antoniok bere zakur txikiari zor dizio harrapaketa gehienak; azeriaren arrastoa berehalaxe sumatzen du eta bere zuloa eraman, barrena sartu eta han berebiziko zaunkak izaten omen dira. Zulo sarrean zepoak ipini eta han erortzen dira gehienak. Zuloan sarrean izaten dira azeriak egindako harrapaketa-ren hondarrak: konjeu larruak, oilo lumak eta abar eta mendian itotako arkumeak. Azeri kumeak, bizirik arapatuak, katean dituztenak badiara. Ereñoizko artzaiak saria ematen du harrapatutako azeri bakoitzeko. Bejondeiolo Joxe Antonioren eta bere zakur txikiari.

GAZTE BI

elgeta

Kaio. Ordua zen, bai. Herri hontako berriak aldiak iri hontan azken aldiak ikusi genduzenetik egon arit, epe luze bat iragan da. Ez dakit zenbat denbora hilabete, hiru, hamar, urte bat. Beharbada gehiago.

Jende askok ez daki Elgeta non aurkitzen den. Bizkaian ala Gipuzkoan? Bi hauen muga delarik baina Gipuzkoako partean, noski. Halere bizkaierara jotzen dugu mintzateko orduan. Euskalgi honek muga geografikoa azpaldi hautsi bait zuen. Elgetak euskal herriaren historian bere garrantzia izan badu ere, gaur nonbait ez da hain ezaguna. Elgetarrok orri hontan idazten dugunagatik behintzat ez da ezagunagoa bihurtuko. Ez al daude herriak idazteko? Edo herri hil bat ote?

Herri hila baino idazle hilak edo luma motelekoak zihurrago. Eta, norentzat idatzi? Hau beste problema. Zenbatek irakurtzen du euskaraz Elgetan? Zenbat elgetar ote dira Z. Argia, Anaitsuna edo beste euskal aldizkariaren bateko arripedun? Euskarak bere beheakada izan badu ere, azken urteotan goraka hasi dela dirudi. Hemen, nahiz eta berandu, behetik gorako korronta horri jarraitzeko prest gaude gazte batzuk. Irangaio eta dugu luzaro? Euskarari iraunkorra baldin bada, bai horixe!

MUS TXAPELKETA

OSKARBI elkarteak eraturik, joan zen larunbatean hasi zen. Antolatzaileek zute zuten baino arrakasta handiagoa izan duela esan behar. Norik pentsatu Elgetan 33 bikote apuntatuko zirenik? Hainbat eta hainbat jende bereganatzen dituen euskal joku honek, gizon eta mutil —hemen ere emakumerik ez— anitz inguratu ditu txapelketa honetara. Zergatik ordea emakumerik ez? Hemen ere diskriminazioa ote ala emakumeak mus zaleak ez? Bigarrena zihurrago, zeren neska batzuen ahoetatik entzun dugunez —minduta ote?— «briska» txapelketa bat antolatuko omen dute. Oso ongi, baina datorren urterako ia musean ikasten duzuten. Eta une honetan galderak zuten hau etorri zai burura: Zergatik hitzaldietarako baino muserrako jende gehiago?

MARGO ERAKUSKETA

«Nor da edermenari buruz ez dela deus idatzirik esan duena? Gezurari! Bada idatzirik asko. Gertatzen da ez dugula irakurtzen. Eta hori besterik da». Jurgi Oteizak aldarrikatutako hitzak dira hauek.

Elgetan ere hau gertatzen delarik ezin uka. Baina artea ulertzeko, ikusteko eta sentitzeko, artistak behar dira. Herri batek, artearekiko lotura, artisten birtate hartzen du. Azken urteotan Elgetak ez du artistarik sortu eta horrela, artearekiko zale-tasuna zeharo galduta da. Bai, hau aitoritza tristea da, baina horrela da. Inora joan gabe, gure elizan dauzkagut benetako ikusgarriak. Konturatu al gara inoiz? Hemen beste egun baterako gaia dagola uste dut eta ez du mezeirik hortik luzatzerik. Joan gaitzen ba muinera.

Gazteok ez dugu nahi hildo honetatik jarraitzerik. Ba dakigu artista «titulos» hori hartzeko nahian dabilzala hiru edo lau gazte. Eta hor non, inork jakin gabe, idazle, pintore, poeta, etab. gure artean agertzen diren. Pozgarria benetan!

Giro honetan jakin dugunez, gure pintoreak erakusketak bat eratzekotan dira. Erakusketak honnek 24an hasi eta hamar bat egun iraungo du. Ohitura dan bezala, ikastola azpiko aretoan izango da eta ikusleko orduak gaueko 8etatik 9:30etara.

Erakusketak hau OSKARBI elkarteak kultura taldeak eratua izan da. Eta bertan herriko hiru gazte lanak agertzen dira. Lorea Elkor, Lurdes Olabarria eta Pello Alberdiren eskuetatik irtendako margoak dira hauek. Ia nortzuk jarraitzen dioten hauen biderei.

INTXORTA

azpeitia

ETXEGARAIEN GORAZARREZ

Aurtengo Azaro honen 4ean, Etxegaraiok Karmeloren berrogeita hamargarren heriotz-urteak bete da. Egun honetanxe hil zen, Gernikako herrian. 1925ean, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Aldegardegi Kronista gien zutenez gero, Karmelok Gernikara joatea erabaki zuen. Herri honetan igaro zituen bere bizitzako azken hogeita hamar urteak. Beraz, Etxegaraiak, bere bizitzaren aldirik narrena, Gernikan eman zuen. Herri honetan bizi zen garaietan idatzi zituen, Instituciones Forales de Guipúzcoa, Apéndice a la obra de Gorosabel, De mi País, De mi Tierra Vasca, Memoria sobre los Archivos Municipales de Guipúzcoa eta b.

Karmelok, aita Zumaiaiko kaika buruzagi zuen, ama berriz urrutildarra, Josefa Inixi Korta zeritzana. Azpeitiko parrokiako bataio-argiaren agertzen denez, aipatutakoek, gure Kronistari, lau izen ezarri zitzioten: Karmelo, Inazio, Sebastian, Trifon. Izenek eta izatez, bapo horniturik agertzen zaigu gure Kronista.

DONOSTIAR BATI AHAZTU ZAIONA

Azaroaren hamarrean, Donostiako «Hojas del Lunes»-ek, beti edo gehienetan ohi duen bezala, «Un Donostiarra» izenpeturiko editorial bat eskaini zion Etxegaraiari; edo hobeki esan, bada ezpada ere, Etxegaraiari. Donostiaren honet —bera ere ez ote nonbaiteko kronista?—, aipatu lanean, Azpeitian Azaroaren 2an egin zitzaion omenaldia berri eman nahi digu. Besteak beste, Etxegarai, buruz buru eza gutu ahal izan zuela ere esaten zigun. Eta artikularen azken aldera, Etxegaraiaren zertzelada ugarri eman nahirik edo... honela dio: «Si bien es cierto que Azpeitia ha conmemorado el cincuentenario de la muerte de Etxegarai, acontecida en 1925, pudo haber englobado en esta conmemoración otras dos fechas, también acabadas en cinco, o sea, el 110 aniversario de su nacimiento, en 1865, así como el octogésimo de su nombramiento de cronista, en 1895, a sus treinta años de edad...».

Benetan tundigarri zait hain xeheki datorrigun donostiar artikulugile honi beste zertzelada bat ahaztu ahal izate! Ez ote zekien, 1925eko urte honetan bertan, Etxegaraiak, Azpeitira etorriarik, Euskaltzaindiako sarrerak-hitzaldia eginaz, euskaltzain oso egin zela? Zertzelada nifino bat besterik ez ote? Agian... Baina guziok jakin dezagun behintzat, Etxegaraiak, Euskaltzaindia begirune eta errespetoz handiz zekala. Azpeitiko omenaldian gainera, donostiaren honet aipatu ere egiten ez duenarren, Euskaltzaindia gurean mahai-buruko. Eta gure aipaltasun eta muga guziki eskaini diogun omenaldi honetan, Etxegaraiok Poligrafo trebecari, euskal marku bat eman nahi izan digu.

PIER PAOLO PASOLINI

Zinegile trebea, poeta sakona eta idazle zorrotza zuten Pasolini hil berria. Egia, justizia eta libertatearen oihartzun gardena. Bortxaren etsai sutua. Pasolini intelektual independente bat agertu izan zaigu bere 55 urte emankorretan. 17 libururen idazle, 14 filme berak izenpetuak. Antzerkile ere bazeuden. Azkenaldia, «Corriere della Sera» egunkarian idazten zuen.

Nola hilko eta, hara, bazterrik bazter, lanik gabe zebilen 17 urtetako gazte litxarrerak baten bortxakeriaz!

Literatur eta kultur-mundua samigin-garasi ikarati bat egin du, Pasoliniren heriotza ezagutu ondok. Guk ere pena dugu, kulturaren alde eta gizonaren askatasunaren alde etnik gabe dehadarka ziharduen oihu ozena, gisa honetan isilarazteak.

Bere hitzak gogoratuz eman nahi diogu azken agurra, gizar-teori hain obra mardula utzi dion artista konprometitut honi. «Bigarren industri-iraultzak sortu den botere berri honek, gizona hiriat on bat izaterik ez du nahi. Gizona, gudari on bat izatera ere ez du nahi. Botere berri honek, ez du nahi, jadanik, gizona, pertsona jatorra eta zuhurra izaterik. Gizona, tradizionalista izaterik ez du nahi, eta arce gutxiago erlijio maileta. Beraz, Eliza bera ere, nolabait tradizio baloreen defendatzaile sentitzen den Eliza, egungo egunean, botere berri honetazko, ez beharrezko eta alferrikako izaki. Eta ziur aski, botere berri honen oldartzez bazezeratua... Botere berri honek (demagun burjesiak) kontsumo-gizona baka-rrik maite du».

Hildakoen BAKEA bego berekin.

ANATSAN

eibar

Ba dator San Andres, eguraldi txar, negu giro eta gaztaina berr

usal gozoz eta guzti. Horrekin batera, azken urteotan ohitura bihurtzen ari diren kontzerto, sariketa eta jaialdia. Hasteko, programari begirune bat bota diezagun.

29AN

Arratsaldeko bostetan, Club Deportivo aretoan, «Exposicion Fotografica Nacional» erakusketaren iraspena.

—530. Buruhandi edo jigante eta kabezudoen kalejira. Ondoren, Untzaga enparantzan, umeentzako jolasak.

—7etan, San Andres Parrokian, Donostiako Orfeola (115 abots) eta Eskolania (45 abots) taldeen kontzertuak.

—10etan, Orbeo Frontoiaren haizkari saioa. Lasturko Mixteta analak, Eibarko Areta eta Aitzubaren aurka.

—11etan, Untzagako Enparantzan, dantzaldia.

30EAN SAN ANDRES EGUNA

Goizeko 10etan, San Andres Parrokian Meza Nagusia.

—12etan, Untzagako Enparantzan Sukaldarien Txapelketa hontan herriko soziedadeek parte hartuko dute.

—Arratsaldeko 2etan, Peli Egaña, aurtengo Bola del Grabador-en irabazlearentzat, omenaldi bazkaria.

—430an. Elbar-Zamora Ipuruan, eta Astelena Pelota lekuan, pelota jokoa.

—7etatik 9etara Untzagako Enparantzan dantza.

ORFEOI DONOSTIARRA

Escola Armeriako Lehengo ikasleek elkarteak, 25 urte betetzen antolatut dituen jaialdi eta eginkizun artean, San Andres bezperan izango den kontzertuak dugu.

Lehenengo hileko 18an, Eibarren izan genuen Ayestaran jauna talde haren zuzendaria; honekin batean, Orfeoi organo jolea ere etorri zen. Bi hauek, jaietarako konzejal den Juanito Txoko eta Elkarteoko presidente den Jose Mari Kruzetarekin batean, San Andres Parrokiako toki eta akustika ikertuaz, organoa beregin edo afinatuaz, azken antolaketa egiten zizuten.

Orfeoiak, baita Eskolaniak ere, ez du propaganda beharrik. Programa oso ona da. Ea erantzun on bat ematen diegun.

BOLA DEL GRABADOR

Peli Egañarentzat izan da 1975eko Bola del Grabador. Eibarko gauza on asko egin dizkion gizona. Berari esker dugu, esate baterako, Unibertsitatea Laborala, Honetaz gainera, ikastolek ere asko zor diote. Ondo merezia Peli Zorionak!

KULTURA

Badirudi, San Juanak, kaleko jai izatera igaro direla, eta San Andresak, barrukoak. Hau da, erakusketak jaialdi eta toki txikiak egin daitezkeen egiteak. Urte guziko margo lan edo arte lan erakusketarik ga-rantzitsuena San Andreskoa da gaurregun.

Jarraian dituzten izenak baieztatu dute nik esana: Irungo Mentxu Gal, Zarauzko Ugarte, Bilboko Barcelo eta Garcia Erquin eta Ondarroako Beristain, hauek dira aurtengo margo lan erakusketan parte hartzen dutenak.

Filatela eta Numismatika sariketak ere bada. Orain arte bezala, Udaletxeko Liburutegian.

Ez dut uste aspertzeko unerik izango dugunik.

ODILE KRUZETA

lezo

ZINE FORUM

Ageri denez, ez da oso argia izan beharrik, bada herrian lanerako prest dagoen jenderik. Zine Forum eta guzti Lezon, alajainen! Hama-bostean behin egiten da eta nahiz orain artekoak estegunetan izan, au-

rrerantzean larunbatetara pasatzeko asmoa dute. Goiko Elizako korupean egiten da.

Egun arte eskaintako filmak hok izan dira: «Psikosis», «La colera del viento» eta «Luna de papel». Asmoz azaroaren 22an Buñuel-en «Ensayo para un crimen» eman nahi zuten, baina Madrilko gertaeren ondotik azteratu egin beharko dute, noski.

GAU ESKOLA

Igaz bezala, aurtun ere Gau Eskola martxan hasia da Ikastolaren eta Ekaitz Elkartearen babesean, euskaraz ez dakitenei erakusten eta dakienari, berriz, idazten, irakurtzen eta gainera euskal kulturaren munduan sartzen.

Azken kurtsuon hasitako 83 ikasle-tatik 63k bukatu zuten, la urtearen dena orduan bezain ongi gertatzen den. Ez dugu gutxiagorik espero.

HITZALDIK

Azaroaren 3an, Jesus Mari Arrietak, Foruei buruzko mintzaldi ulertor eta klaro bat eskaini zuen Ikastolako lokalatan. Esan bezala, foruak Euskal Herriaren Konstituzio izan zirela esan zigun, denok eraz ulertzeko moduan. Tamalez, jende gutxi bildu zen; gehienak, Gau Eskolaren inguruan dabilzen gazteak. Propaganda ez da ahal bezain ongi egiten, ala batzuek ez dute ez ikusten, ez aditzen, ez ezer.

Abenduaren 22rako bada beste hitzaldi bat egiteko asmorik, Gala, «Euskaldunon ohiturak Eguberriren». Adi beraz.

APAIZ BERRI

Hilaren 12an, Joxe Luis Aperribai beragatar apaizgaiak, Beheko Elizan apaiz izateko prest dagoela adierazi zuen, arrotsean eman zen meza batetan, Lezon gertatzeko gogotsu dagoela dirudi; esan ez balu ere, ongi antzematen bait zale; egia esan, komeni zaizkionak nago. Hau delata, Setien apezpikua izan genuen herrian.

Elizkizunaren ondoren lehen bat eskaini zen Ekaitz Elkartearen aretoan; jende ugari bildu zen eta ez zen tripa hutsik aldu.

TXIMIST

Gorago aipatutako Goiko Elizako korupean, azaroaren 13an, Tximist Espedizio bi izan ziren eta beren Everest-eko gora-beherak hitzez nahiz diapositibaz ongi erakutsi zizkiguten. Holakorik egiteko, gogoaz eta diruaz gainera, beste zerbaite ere behar da.

ANTZERKIA

Astea nahiko beteak izan dugu. Larunbatean, hilaren 15ean, Lezoko Antzerki Taldea lehenengo aldi agertu zen jendaurrean eta «Txapela bete euri», Michaelo Gazzo-rena eta Mari Dolores Agirrek euskeratutako antzerki lana jokatu zuen, Iñake Bezararen zuzendaritzapean. Teatra zeren izan zen erate beharrik ez dago, betiko teatro probisional: Gorko Eliza.

Entzun eta ikus, ez zen nahi bezala egiten, baina hauek gure teatro-aren berezko argotzenak dira. Obraz eta jokalariez kritikoez dute hitza.

Bizi luzea opa diogu teatro taldeari eta egin duen lanagatik, arrakastarik haundiena. Berekin batera lezeorren izena goraituaz izango dela ez dugu dudarik.

Gazte asko bildu zen; zaharrak hotzak geratu ahal ziren etxean izango dugunik.

BERRIZ HEMEN

Gure artean dugu berriz, lau urte luzetan espetxeraturik egon ondoren Joxeba Urkizu herritarra. Hemen draugu eta oraindik lehenago lepotik burua. Ongi etorria Etxera!



SISTIAGANEKO PELLOK

Liburu-denda pribatu baten ekintza interegarria

IV EUSKAL LIBURU ERAKUSKETA

- 1975 «Zidarrezko Lauburua»ren Emanaldia
- Gabriel Arestiren omenetan
- Zenbait libururen aurkezpen eta azalpenak

Bilboko «Galeria del Libro» deitu liburu-dendak laugarren aldikoz muntatu du 1972 urtean sortarazi zuen **Euskal Liburu Erakusketa** delakoa.

Erakusketa hau, liburu-denda batek ukan ditzakeen baldintza eta abantaila guztiek, Bilbo erdi erdian (Erzilia, 35) eratua izaten da, bere ohizko bezeroei nahiz euskaldun eta euskal kulturazale guztiei, euskal literatur produkzioaren berri ikuspegi orokor bat eskaini nahi asmoz.

Zaballa jaunaren zuzendaritzapean, galeriak editorial multzo handi eta zabal bat aurkeztu ohi du, denetarik liburuak eskainiz batetik, eta hego Euskal Herriko liburuaz gainera, ifar aldeko liburu gintzaren kimurik interesgarrienak ere posibilitatuz.

Erakusketa honen inguruan, Zaballak muntaketa egoki bat egin ohi du, hainbat libururen aurkezpen eta azalpenekin batera hitzaldi eta jendaurreko elkarrizketa batzuk prestatuz, bai eta, zer esanik ez, aurtengo «Zidarrezko Lauburua»ren emanaldia ere.

HITZALDI EGITARAUA

Aurtengo hitzaldi saila hedatu samarra da, eta azaroaren 20tik abenduaren 5era arte iraungo du.

Hasera hitzaldia R.S.V.A.P. delako elkartearen lehendakari den Juan Ramon Urkixo jaunak eman behar zuen, baina ez zuen ahal izan. Azaroaren 20 zen. Arrazoi berberagatik ez zen bihamunean eratu ahal izan ere, Fernández de Pinedo azterlariak bere «Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850» liburuaz egin behar zuen ihardunaldia.

Ondoko astean, Joan Mari Torrealdai «Sei idazle plazara» delako liburuaz mintzatzeko zen, eta Paulo Agirrebelzategi, Dionisio Amundarain eta Joseba Intxausti hirukoa «Kristau Bidea» (holandar katekima) aurkezteko. Biak idanik eratuak.

● Datorren asteari dagokionez, hilaren lehen Aita Villasante euskaltzainburuak Altuberan «Erderismo» liburuaz ihardungo du.


Hilaren 3 eta 4ean, German Elorza —«Bilbao Camp»— eta Ramiro Pinilla —«Guía Secreta de Vizcaya»— idazleek nork bere liburuen aleak izenpetuko dituzte.

ARESTIREN OMENETAN

Hilaren Sean, azkenik, jendaurreko elkarrizketa bat moldatuko da Gabriel Aresti euskal poeta zenaren omenetan.

Juan San Martin, Ibon Sarasola, Jon Juaristi, Luis Haranburu-Altuna, Aita Gandiaga eta Mikel Laso guztiz ezagunak osatuko dute mahaia, nork bere alderdi eta ikuspegitik, Arestiren izakera eta obra aztertuz eta irakurriz.

Mahai inguru honekin, «Galeria del Libro» liburu-dendan Gabriel Aresti ohoratu nahi luke, euskal letretako pertsonaia guztiz interegarria denez gero, zeren, programan bertan adiarazten diren hitzak errepikatuz: «Gabriel Aresti zena ohoratzea, bidezko eta egoki iduritzen zaigu. Zoritxarrez hila dugu. Gure arteetik aldegin. Hala ere, haren poesia, gure bihotzetan bizi dugu. Bizi eta biziko, luzaz».



ZIDARREZKO LAUBURUA

Sari hau iaz sortu zen urteko libururik interegarriena edo, nolabait berezi gurarik. Interegarria ez, hainbat jakinek balioz, eta egin daitekeen aportazio konkretu batez gatik edo bestegatik ere.

Zaballak esan bezala, lehenik epai-mahai bat izendatzea pentsatu zen, han-hemenakako jende jakintsuz osatua, baina, ideia, nahiko zail zitekeen praktikan liburu-denda batentzat, bai mahaikoak biltzeko, kriterioak finkatzeko eta.

Ohizko planteamenduak aldatuz, irakurle arruntaren iritzia kontutan hartu nahirik, errazen saldu eta eskabide gehien duten liburuen artean halako «consulta publica» delako bat egitea erabaki zen, eta aukeraturako bospaseiren artean azken hautapena egin.

Iaz Martin Ugaldere «Hablando con los Vascos» liburuak irabazi zuen, eta aurtun, berriz, Jesus Altunaren «Lehen Euskal Herria» izenekoari eman zail, Lan Kide Aurrezkiaren diru laguntzapean GERO editorialak argitaratu emana.

Azken hautapen hau, «Erderismo», «Introducción a la historia social y económica del País Vasco», «Política Obrera en el País Vasco 1880-1923», «Bat bitan banatzen da», «Sei idazle plazara» eta beste zenbaiten artean egin da.

Saria, «Zidarrezko Lauburu» bat, hain zuzen, Bilboko zidargin batek egindako pieza bitxi eta baliosu bat da, handi samarra, oinean, eta erdaraz, obra sarituaren eta berorren egilearen zehaztasunak adiarazten direlarik.

Saio guztiak iluntzeko 8tan. hasiko dira.

L. A. ARANBERRI

OLERTI EGUNA

Bizkaiko Larrean ospatu ohi da Olerti Eguna Kristo Errege egunez. 1961garrenean hasi ziren olerkariak Larrean biltzen A. Xanti Onaindiaren buruzpidez. Urtero ospatu da 15 urte hauetan Olerti Eguna.

Iazkoa Xanti Onaindiari egin zitzaion omenaldiaz edertua izan zen. Alde batekoak eta besteak bil erazi zituen Xanti Onaindiaren irifar goxoak. Jende asko bildu zen omenduaren inguruan.

Olerti egun soilak izan da aurtengoa. Ez da izan omenaldirik. Hogeita hamarren bat olerkari bildu ziren Larrean azaroaren 23an. Beste gertaera batzuk zuten jendea kezkatutik. Ingurumari-ko jende mordska bildu zen Larreako ospakizunetan olerkarien ondoan.

SARIAK

Lirika, poesia, bertsoa eta alegia saritu ohi dira Olerti Egunez.

Bertso eta alegi sailean inork ez du sariketara horetara lanik azaldu. Lirikan eta poesian bakarrik agertu dira.

Fernando Artola «Bordarik» irabazi du lirika saileko lehen saria. ERASKINAK deitu lanak eskuratu dio lehen sari hori. GO-RAINTZI deituaren jarraipena da, dirudienez.

Poesian, Brinkolako Martin Ugartek irabazi zuen BURRUKA deitu lanagatik.

Sariez aparte bost aipamen izan ziren aurtengo Olerti egunean.

Aipamenak:

Sabin Muniategiren bost poemari.

Aurre-Apraizen Iskillutaren Gutuna deituari.

Luis Mari Muxikaren Zena mirabe poemari.

Eta Paulino Solozabalen Orduan eta Zauriz dago poesiei.

ETORKIZUNA

Olerti Eguna olerkari zaharren eguna bilakatu da dirudienez.

Luis Mari Muxika bakarrik dugu hazaldi berriko olerkaria. 36 urteko poeta dugu. Ez da hain umea, beraz.

Beste bost poeta irabazleetatik, gazteenak ere, Martin Ugartek, otsailaren 14ean betekiko ditu 60 urte. 1912garren urtean jaioak dira Paulino Solozabal, Aurre Apraiz eta Sabin Muniategi. Bordari, berriz, 1910garrenean jaio zen.

Poz handia ematen du bizitzaren udazkenean lanean ari den jende honek. Amaren sabaletik irten aurretik nekatutako jendea ere bai bait da gure artean.

Baina gazte guztiak ez dira alferrak, noski. Zaharrek inon nahi ez duen gaitzerik ere bada.

Poeta gaitzerik ez da hurbiltzen Larrea. Hori da kezkarria. Olerkari zaharrek inon batera bukatuko ote da Larreako Olerti Eguna? Tristeza litzateke benetan.

Sariketa batean parte hartu aurretik mahaikoak



nor diren begiratzeko dio jendeak. Eta begiratzekoa da. Mahaikoen iritzira erabakitzen dira sariak. Batzuk ala besteak izan mahaiko, alde handia da erabakitzeko orduan.

Buru argi eta bihotza garbi behar dute mahaikoek. Eta ez dituzte beti izaten, noski.

Larrekoan Xanti Onaindi, Nemesio Etxaniz eta Erkiaga izan ohi dira. Aurtengoa ere hoiak ziren mahaiko. Gizon hoiberik aurkitzea ez da erraza munduan. Euskararen alde hauek hainbat lan egin duenik ere zail da aurkitzea.

Baina urteek ez dute barkatzen. Osasunez zimel eta gorputzez lerdin badirote ere hiru gizon ospetsu hauek aspaldi samar jaloak dira. Azkena jaio zena ere 1912garrenean jaio zen. Geroztik hotz-bero asko izan da munduan eta gure herrian. Hotz-beroez ez diete giza-tasunik, merezimendurik eta osperik kenten.

Urte hoietan ez da erraza, ordea, gaurko iritzietara eta gustuetara ezartzea. Eta ezertan gustuak agintzen baldin badu poesia kontuan agintzen du. «Arteaz ez omen dago ezer idatzirik».

Dena den hemendik aurrera Lehen Saria irabazten duen guztia mahaiko izango da Olerti Eguneko sarietan. Mahaikoek berri-tzeko bide bai izango da. Lehen aipatu dugun arazo hori kontuan hartu bait du Xanti Onaindiak.

BI ALBISTE

Datorren urteko Olerti Egunean Nemesio Etxaniz egingo zaio omenaldia. Merzia du D. Nemesiok. Beti «Lur-berri» bila ibili den gizon honek izango du zaharrak eta gazteak biltzeko adur ona.

Datorren urtean sari berri bai izango da. Nikolas Alzola, «A. Berriotzoak», «Eujenia Gerediaga Zorionak» saria eskaini du. Bere amaren oroitzapenez eta esker onez sortu du sari hau. Nikolasek berak pintatutako kuadro eman-gaio irabazleari.

Zaharren eta gazteen artean zubia egin nahi duten gizon agurgarri hauen aurrean txapela kentzen dugu. Elkarbideen beharra badugu. Inoiz baino premia handiago eta presakorragoa gainera.

Datorren urtean D. Nemesioren inguruan bilduko garenek gaurtik has gaitzela elkartzen.

ERRIALDE